


74

3 euro • 2003ko URTARRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: BIZITZA OSOAN ZEHAR IKAS-
TEN • "ARBEL ELEKTRONIKOAREN"
MAGIA • DESERTUAREN ERDIKO
LANBIDE ESKOLA BATEN IBILBIDEA
• 0-3 ZENTROAK



ELKARRIZKETA

Imanol Urbietta

Filosofoa, musikaria, irakaslea...



sei liburu

bakoitzak bere xarma du






gaia

BIZITZA OSOAN ZEHAR IKASTEN

Abenduaren erdialdean Florentzian bizitzan zeharreko ikaskuntzaren inguruko foruma ospatu zen EAR-LAIL erakundeak antolatuta. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztuetak hitzaldi bat eman zuen. Aitzakia horretaz baliatu gara erakundea eta bere planteamenduak ezagutzeko.



elkarrizketa

IMANOL URBIETA

Filosofoa, musikaria, irakaslea, ipuinlaria... abiarazten dituen artista dugu. Jaso berri duen omenaldiaren ondoren egon gara berarekin.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

BIZITZA OSOAN ZEHAR IKASTEN

Florentziako foruma

18 elkarrizketa

IMANOL URBIETA

24 teknologia berriak

"Arbel elektronikoaren" magia

Pere Marqués

30 esperientzia

Desertuaren erdiko Lanbide Eskola baten ibilbidea

Jose Luis Fernandez Maure

33 berriak

39 ekarpenak

0-3 zentroak: hezkuntza eskaintza helburutzat eta ez laguntza eskaintza

Alfredo Hoyuelos

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08


Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Aziproz Erredakzio batzordea: Mikel Estarza, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goia, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Imanol Urbieta (Ikor Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002/ XI/21. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Kukurruku! Zer diozu? CDa

Bost ipuin egile: Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Iturbe, Anjel Lertxundi eta Mitxel Murua.

Joxan Ormazabal **olerkiak**, Jexux Mari Lopetegi eta Xabier Zabala **musika**, esaera zaharrak, Pirritx, Porrotx, Antonio Bolas gezurtia eta haur taldea...



Jolasen altxorra Bideoa eta DVDa

Altxorraren mapa hartu, eta **euskal pirata txikiak Pirritxekin eta Porrotxekin** altxorraren bila abiatu dira itsasoetan barna. Barrabas petralak hamaika oztopo ipiniko dizkie helburua lor ez dezaten. Ez dira bakarrik ibiliko, ordea.

Abenturaz eta **20 jolasez** betetako bidean, Joxepi itsas-neskaren eta zinginarriaren laguntza izango dute; gainera, **euskaldun ezagunak** izango dituzte bidaide. Ahaleginak saria izango du, altxorra aurkituko baitute. Zer ote dago barruan?



hh
hik hasi

2003

*Etorkizun zoriontsua
opa dizuegu*

hh
hik hasi



EGIN OPARIA EUSKARARI!
Izan laguntzailea!

euskarari
izan
laguntzailea

editoriala

urtarrila

Hezkuntzan parte hartzea behar-beharrezkoa da



Hezkuntza arloan,
Euskal Herria
bezalako Herriek
Europako gune
erabakitzaileetan
egon beharko
lukete

Abenduaren 13 eta 14an Florentzian (Italia) "Bizitzan zeharreko ikaskuntza" Nazioarteko Foruma burutu zen.

Bertan egindako hausnarketan garbi ageri zen Europak ezagutzaren arorantz eboluzionatu duela. Eta, horrekin batera, etengabeko ikaskuntza etorkizuna prestatzeko gako nagusia dela.

Bestalde, behin baino gehiagotan aipatu zen gizarte integratzailea eraikitzea, guztiei bizitza osoan zehar kalitatezko ikaskuntza eskuragarri jartzeko aukera berdina eskainiko dizkiena, eta hezkuntza eta prestakuntza erregulatzen duten arauak, ezeren gainetik eta batez ere, pertsonen premietan eta itxaropenetan oinarrituko dituena.

Pertsonak izan behar du hezkuntzako zentroa, eskualdeko eta

tokiko inguruneak pertsona horren bizitzan zeharreko ikaskuntzan duen garrantzia handia da. Eta hori, zergatik?

- Gertutik, beharrak hobeto ezagutzen direlako.

- Beharrak hobeto ezagutzen badira, hobeto arautu daitezkeelako.

- Hartu beharreko neurriak hobeto aplikatu daitezkeelako.

- Parte-hartzea erraztu daitezkeelako, eta horren ondorioz, demokrazia zabaltzen delako.

Heziketa munduan gabiltzanok, heziketa prozesua gertutik jarraitzeak duen garrantzia izugarria dela deritzogu, helburuak ongi bete nahi baditugu, behintzat.

Ikuspegi horretatik, Florentziako forumean planteatzen zen behetik gorako antolaketarekin guztiz ados gaude. Eskualdeek parte

hartuz, ikasketa prozesuak hobetu egiten baitira.

Penagarria da, bestalde, Euskal Herria Herri bezala, bere osotasunean, ezin aurkeztu izana. Gure Herriaren zatiketa politikoak ukatu egiten du bere kulturaren oinarritutako hezkuntza egituratu bakar bat bezala agertzea.

Dagoenetik abiatuta, Iparraldeko ezagutza juridiko faltak eta Nafarroaren nahi ezak, Euskal Autonomia Erkidegoa bakarrik utzi zuten gure Herriaren ordezkari bezala aipatu nazioarteko forumean.

Florentzian egindako ekarpenak entzunda, denak Eskualdeen parte-hartzea bultzatzearen alde agertzen baziren ere, bazeuden bartzuk esku-hartzea era formalera soilik mugatu nahi zutenak.

kronika

Irakaskuntza pribatuko 2002ko lan hitzarmena sinatu dute patronalak eta ELA sindikatuak.

Mobilizazioak eta grebak tartean izan dituen negoziazioak luze jo du eta azkenean ELA sindikatuak bakarrik sinatu du hitzarmena. Sektorean gehiengo duen sindikatua da, negoziazio mahaian botoen %70 duelarik, eta beraz, horrekin aurrera atera da hitzarmena.

EILASek %15,58ko boto eskubidea du eta CCOOk %14,40koa. LABek eta UGTk, berriz, nahiz eta negoziazio mahaian egon, ez daukate boto eskubiderik ikastetxeetan daukaten ordezkariak ez delako %10era iristen.

ELA ez beste sindikatuak akordioa ez dela mesedegarria izango uste dute. ELAri betiko aldarrikapenak "ukatu" izana egotzi diote. Sindikatu horrek, ordea, akordioa "oso ona" dela uste du. Lorpenen artean ordainsariaren igoera, Haur Hezkuntzako irakasleak hitzarmenean sartzea, Heziketa Fisikoko irakasle laguntzaileen soldata igoera eta musika eskoletako irakasleen ordu kopurua gutxitzea aipatu ditu.



0-3 urtekoen dekretua onartu du Gas-teizko Gobernuak

Abenduaren erdialdean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 0-3 etapako Haur Eskolen dekretua, eta hemendik aurrera dekretuan hainbat alderdi zehaztu eta garatu beharko dira, hala nola, finantzazioa, kuotak, diru laguntzak eta abar.

Edonola ere, hezkuntza komunitateko hainbat erakunderen onarpenik gabe atera da aurrera dekretua. Sindikatuak gauza onak eta positiboak ikusten dizkiote dekretuari, baina baita hutsuneak edo gabeziak ere. Gauza onen artean LAB sindikatuak etapari ematen zaio ikuspegi hezitzailea, hizkuntz politikaren aldeko apustua eta hezitzaileei hizkuntz profila eskatzea aipatzen ditu. Gabezien artean eskola mapa zehaztu gabe edukitzea aipatzen du. Printzipioz, hemendik aurrera eskola publikoek ere 0-2 urteko haurrentzako

eskaintza egiteko aukera izango dute, baina praktikan ezinezkoa dela diote sindikatuak. Izan ere, 2003-2004 ikasturterako matrikulazio epea urtarrilean irekiko da, eta ez dago denborarik baldintzazko eskaintzarik egiteko.

0-3 urteko Mahaiak azaroaren erdi aldera jasotako zirriborroaren arabera, dekretu honen helburua eleaniztasuna bermatzeko baldintzak bultzatzea izan da.

Ordutegiari dagokionez haurrek zentroan zortzi ordu baino gehiago ezingo dutela egon dio. Ikasturteak irailen hasiko lirateke eta 10-12 hilabete iraupena edukiko lukete. Bestalde, familiei emango zaizkien laguntzei buruz ez du ezer esaten.

Nahiz eta dekretua onartua izan, Haur Eskolen mapa diseinatu gabe dago, eta horren aurrean, Sarean elkarteak aurreratu zuen bere kabuz mapa egiten hasteko erabakia hartu zuela. Egoera horrek eta lehen aipatutako baldintzarik ezak, eskola publikoari desabantailak ekartzen dizkiola diote sindikatuak eta beste zenbait hezkuntza erakundek ere.

Bilera, iritzi eta mobilizazio ugari egon dira 0-3 urteko haurren eskolatzeko dekretu honen inguruan, eta gauzak nola joan diren eta nola dauden ikusita, hots, oraindik ere zehazteko puntu batzuk badaudela jakinda, zeresana ematen jarraituko du.

Nola liteke bizitza akademiko osoa euskal eskola batean pasatu eta gero euskal altxor espresiborik gabeko jendea izatea?

Zerbaitek porrot egin du hor

Anjel Lertxundi



Madrilgo Kongresuak baiezkoa eman dio Kalitate Legeari

Espainiako Kongresuak azken onarpena eman dio Hezkuntzaren Kalitate Lege Organikoari. PPko eta Coalición Canariako diputatuen baiezko botoekin aurrera egin zuen legeak, nahiz eta gainontzeko diputatuek kontra bozkatu.

Eskola porrota murriztu eta ikasleen jakintza maila handitzeko helburuarekin egin du Espainiako Gobernuak Kalitate Legea, baina oposizioko talde guztiek kritikatu egin dute. Legeak helburu horiek lortzen ez duela batera lagunduko irizten dute. Begoña Lasagabaster EAko diputatuak adierazi zuen "PPk hezkuntza kontraerreformaren hirugarren atala" amaitu duela, Lanbide Heziketaren Erreformatarako eta Unibertsitateko legeen ondoren. PSOEk PPren konfrontazio jarrera sala-

tu zuen, berak LOGSE egin zuenean lortutako adostasunik ez duelako lortu orain PPk.

Jakina da Kongresutik at ere Legearen aurkako jarrera dela nagusi. EAEko Eskola Kontseiluak, esate baterako, DBHrako proposatzen diren ibilbideak aplikaezinak direla dio hiru hezkuntza eredu ditugun euskal sisteman. Horrez gain, legeak 15 urteko ikasleentzat Lanerako Hasiara Programak ezartzen ditu eta EAEko Eskola Kontseiluaren ustez programa horiek 16 urtetik aurrera ezarri beharko lirateke. Ebaluazio moduari dagokionez, ikaslearen ahalmenak eta garapen aukerak aintzat hartzeko partez ikasgai bakoitzaren inguruko ezagutza gailentzea bultzatzen da eta kurtsoa errepikatzea zigor gisa planteatzen da. Batxilergoan, bestalde, egun dauden lau ereduak kendu eta hiru ezartzen ditu eta horretarako arrazoirik ez duela ematen dio Eskola Kontseiluak. Bere ustez, egun dauden ereduak aberatsagoak eta askotarikoagoak dira. Eta nola ez, batxilergoaren amaieran ezartzen den proba orokorra ere ez du ongi ikusten. Izan ere, frogatua dago proba orokorrekin ez dutela balio ikasleek duten ezagutza benetakoa neurtzeko. Era berean, atzerriko hizkuntzan ezarri nahi den ahozko eta idatzizko probak baliabide gutxi dituzten ikasleei kalte egingo diela esaten du EAEko Eskola Kontseiluak.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak atera berri duen aurtengo Lan Eskaintza Publikoan "irizpide politikoak" erabili direla salatu du LAB sindikatuak.

LAB sindikatuaren esanetan, gaur egungo tokien beharrak eta matrikulazio datuak kontuan harturik, 270 funtzionario gehiago beharko lirateke euskarazko beharrak asetzeko. Lan Eskaintza Publikoaren barruan, euskarazko irakasleei dagozkien D ereduko 55 toki eskainiko dira eta A eredukoak 30.

Gaztelaniazko irakasleei dagokionez, berriz, 135 lanpostu berri aterako ditu Nafarroako Hezkuntza Departamentuak, eta LAB sindikatuak egin duen azterketaren arabera, gaztelaniazko irakasleen artean 265 soberan daude.

Lan Eskaintza Publikoa maiatzean deituko da eta ekain aldera egingo dira oposaketak. LABek aurreikusten duenez, euskarazko 107 toki bete gabe geldituko dira, eta gaztelaniaz, aldiz, 20 toki soberan egongo dira. Nafarroako Gobernuak euskarazko birziklatzerako eskubiak kentzen ari da hartzen dituen neurriekin. Horren guztiaren aurrean LAB sindikatuak ondorio bat atera du: "etorkizun hurbilean irakasleria funtzionario erdalduna hesi gisa jarri nahi da, Nafarroako gizartearen dagoen D ereduaren aldeko eskaeraren aurrean".

UPNko Hizkuntza Politikaren aurkako oihua hezkuntzaren beste mailetan ere entzun dira. DBHko eta NUPeko ikasleak behin baino gehiagotan irten dira kalera protesta ekitaldiak egitera. Unibertsitatean euskararen egoera arautzeko lege proiektuak ikasleak erabat kezkatzen ditu.

Bizitza osoan zehar ikasten

Florentziako foruma





EARLALL bizitza osorako heziketa bultzatzeko erakundea

Ezagutzaren gizar-
tean omen gaude.

Etengabe presta-
tzea ezinbesteko izan-
go omen da etorkizu-
nerako, bai lanerako
eta bai bizitza arrunta
egin ahal izateko ere.

Hori bideratzeko
EARLALL (European
Association of Regio-
nal and Local Authori-
ties for Lifelong Lear-
ning) sortu zen. Era-
kunde honek antolatu-
ta, abenduaren 13 eta
14an Florentzian (Ita-
lia) burututako Forum-
ean aurkezpen asko
egin ziren, besteen ar-
tean, Anjeles Iztueta
Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza sailburua-
rena.

Baina, zer da EAR-
LALL erakundea?

2000ko martxoaren 23-24an Euro-
pako Kontseilua bildu zen Lisboan da-
torren hamarkadarako helburu estrate-
giko bat abian jartzeko: ezagupenean
oinarritutako munduko ekonomia
lehiakorrena eta dinamikoena bilaka-
tzea, ekonomi hazkunde iraunkorra,
lanpostu gehiago eta hobeak, eta giza
elkartasun handiago sortuko duena.

Helburu hori erdiesteko, noski, jen-
dearengan inbertituko duen estrategia
orokor bat eskatzen du: "jendea -onar-
tu zuten Lisboan-, Europak duen erre-
kurtsorik nagusia da, eta Europar Ba-
tasuneko politikak horretan oinarritu-
rik egon beharko luke. Jendearengan
inbertitzea eta gizarte aktibo eta dina-
miko bat garatzea funtsezkoa izango da
Ezagupenaren ekonomian Europak
izango duen garrantzirako, eta adieraz-
pen horretan bermatu beharko da eko-
nomi berri horrek ez duela gizarteak di-
tuen arazoak, ez dituela areagotuko,
hots, langabezia, marjinazioa eta po-
brezia".

Horretarako, eta beste batzuen ar-
tean, estatukideei ondoko helburuak
azaltzen dizkiegu:

- Giza baliabidetan inbertituko de-
naren funtsezko per capita igoera.

- Eskola eta prestakuntza zentroak,
guztiak Internetera loturik, herrietako
jarduera anitzetako ikasketa zentro-
tan bihurtu behar dira, guztiei irekiak
egongo dira eta behar diren baliabide-
ak erabiliko dituzte eskaerari eskaintza
zabala emateko. Ikasketarako elkarla-
na hedatu behar litzateke eskolen arte-
an, prestakuntza zentroen eta lantegien
artean, eta parte-hartzaile guztien me-
sederako izango diren azpiegiturak az-
tertu.

- Europar markoak bizitzan zehar
hornitzeko trebakuntza berriak bultza-
tu beharko ditu: informazioaren tekno-
logiarako trebakuntza, atzerriko hiz-

kuntzak, teknologia, giza eta negozio-
tarako trebakuntza; informazioaren
teknologiaren oinarritutako trebakuntza
tituluak baliozkotuko litzuzkeen siste-
ma europarra jarri beharko litzateke
abian, prestakuntza hori zertifikatuko
luzkeen prozedura deszentralizatuen
bidez alfabetizazio digitala bultzatzeko
Batasunean zehar.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza
nahitaezkoa da estrategia honi ekiteko.
Etengabeko ikaskuntza ez litzateke
hartu behar hezkuntza, irakaskuntza
edo trebakuntza profesionalaren beste
arlotan biltzeak, baizik eta printzipio na-
gusi bezala, hots, ezagupenaren gizar-
tean benetan parte-hartzeko beharrez-
koa den trebakuntza etengabea izan
jabetzeko edo berritzeko aukera bermat-
tuko duten zimenduak bezala.

Europar Batasunak bere gain hartu
du helburu hau "Bizitzan zeharreko
ikaskuntzari buruzko Memorandum"e-
an, Kontseiluko Komisioari, Europar
Parlamentuari, Giza Ekonomiaren Tal-
deari, eta Herrialdeen Taldeari bidalita-
ko komunikazioen bidez, eztabaidagai



G

izan zedin estatukide guztietan, herri eta nazio mailan, 2001eko ekainera arte.

Bizitzan zeharreko ikaskuntzak irakaskuntzarako eta prestakuntzarako, formala eta ez formala, aukerak zabaltea, integratzea eta enpresa eta instituzioen esku-hartzea eskatzen nahi du.

Gazteek, hirugarren adinekoek, lanpostudunek eta langabetuek, besteentzat lan egiten dutenek eta autonomoek, horiek guztiak, eta ikaskuntzarako prozedurek eta helburuen araberrako metodologiek hornitu behar diren kalitatezko prozedurek zera eskatzen dute: hartzaileen eta sistemen arteko adostasuna, hots, irakaskuntza eta trebakuntza profesionalerako sistema, instituzio publikoena eta enpresena.

Irakaskuntza, trebakuntza eta kultura sareak, zabalagoa izan behar du, helburu horretan konpromisoa hartzen duten subjektu guztien ispilu behar du izan, eta berdin-berdin izan behar du zabala.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza praktikara eramateko elkarlanean aritzea da biderik onena:

- Denak barne hartzen dituen gizartea eraikitzeko, jende ororentzat bizitzan zehar kalitatezko ikaskuntzarako aukera berdinak eskainiko dituen gizartea, hezkuntza eta trebakuntzarako horniketa gizakideen eskaera eta beha-

Oinarrizko eskubideen karta europarrak dioen bezala "gizaki orok du irakaskuntzarako eta etengabeko trebakuntza profesionalerako eskubidea"

rretan oinarrituta izango dituen gizartea.

- Hezkuntza eta trebakuntza eskuratzeko bideak ezartzeko eta ordaindutako lanaren bizimodua antolatzeko jendeak bizitzan zeharreko ikaskuntza horretan parte har dezan eta norberak planea dezan nola nahi dituen konbinatu ikastea, lan egitea eta familia bizitza.

- Orokorrean heziketa eta kualifikazio maila hobekak lortzeko sektore guztietan, eta aldi berean, jendearen jakituria eta trebetasunak lanpostuen, lanaren antolamenduen eta lan metodo-

en eskaerekin bat datoze la ziurtatzeko.

- Jendea egungo bizitza publikoaren inguruan, batik bat komunitatearen edozein giza eta politika mailan aktibokiago parte hartzera bultzatzeko eta janzteko.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza ezingo litzateke abian jarri herri mailako agintarien konpromisorik gabe. Funtsezkoa da herrietako agintarien errekursoak martxan jartzea bizitzan zeharreko ikaskuntza sustatzeko. Eskualdeak, herrialdeak, hiri txiki eta handiak hartu behar dute konpromisoa eta arazoaren arduraren gainean oinarritutako proposamenak egituratu.

Horrela, akordio hau sinatzen duten herri agintariak konpromisoa hartzen dute edonori irekitako bizitzan zeharreko prestakuntza sare bat sortzeko ondoko xede komunekin:

- Europa ezagupenaren gizartea bezala eraikitzen laguntzeko.

- Europako bizitzan zeharreko ikaskuntzaren inguruko eztabaidara ekarpenak egiteko.

- Iraganeko eta oraineko esperientziak elkartrukatzeko.

- Esperientzia berriak eta proiektuak sortzeko.

- Instituzioetako eta instituzioz kanpoko eragile gehienak horretarako konpromisoa hartzera bultzatzeko.

Oinarrizko eskubideen karta europarrak dioen bezala "gizaki orok du irakaskuntzarako eta etengabeko trebakuntza profesionalerako eskubidea". Europar Batasunaren etorkizunetan printzipio horren ezarpenerako behar diren lanabes zehatzetako bat izan nahi du bizitzan zeharreko ikasketetarako herri agintarien mailako sare honek.

Europar Batasuna banaezinak eta unibertsalak diren balio hauetan oinarritzen da: duintasuna, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna, jarduera bakoitzaren gune nagusian gizakia dagoelarik.



Eskualdeen zeregina Europako programak baloratzeko prozesuen garapenean

Jarraian agertzen den idatzia Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak 2002ko abenduaren 13an Florentziako forumean emandako hitzaldia duzue. Bera EARLALL elkarteko lehen-dakariordea da.

1.- Etengabeko ikaskuntza-politikak: Eskualdeen eragina. Euskal Herriaren jarrera

2000ko martxoan Europako Kontseilua Lisboan bildu zenean garrantzizko unea adierazi zuen Europako Batasunean politika eta ekintza bideratzeko garaian. Bertan ateratako ondorioetan adierazten denez Europak ezagutzaren arorantz eboluzionatu du inolako zalantzarik gabe, horrek edozein herrialde edo eskualdeko kulturari, ekonomian eta gizartean esan nahi duen guztia kontuan izanik. Ikaskuntza, bizitza eta lan eremuko ereduak bizkor aldatzen ari dira. Beraz, hiritarrek aldaketa horietara egokitzeaz gain, pertsonak jokabidez aldatu beharko dute baita ere.

Ondorio horietan behin eta berriro aditzera ematen da bizitzan zeharreko ikaskuntzarako joerak ezagutzan oinarritutako ekonomiara eta gizartera zuzendutako trantsizioarekin batera gertatu behar duela, trantsizio hori arrakastaz burutu ahal izateko. Horregatik, Europako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak datozen aldaketen muina izango dira.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza gauzatzeari buruzko Europako norabideen arabera, 2000ko urrian Batzordeak berak "Etengabeko ikaskuntzari buruzko memoranduma" argitaratu zuen, gizarte eta hezkuntza politikan azken urteotan egin izan diren dokumentu berritzaileenetako bat izanik. Oso berritzailea eta etorkizun handikoa den lan ildo eskaintzen du hezkuntza politiken koordinazioan eta sustapenean baita gizarteratzeko politiketan ere.

Dokumentu honekin Batzordeak

konsulta prozesu bati hasiera eman zion Estatu kide guztietan, etengabeko ikaskuntzaren protagonista guztientzat eta maila guztietara irekia, bizitzan zeharreko ikaskuntzarako estrategia global maila indibidualean nahiz instituzionalean eta bizitza publikoaren eta pribatuaren eremu guztietan gauzatzeko.

Etengabeko ikaskuntzak hauxe bermatu behar du, Europako hiritarrek aukerak berak izatea eraldaketa sozialak eta ekonomikoak inposatzen dituen eskarietara egokitze eta, horrela, Europako etorkizuna eratzen aktiboki parte hartzeko.

Euskal Herriak, Europako beste eskualde batzuek bezala, eztabaida horretan parte hartu zuen, eta bertako hiritarregana hurbildu zuen konsulta-prozesu ireki baten bitartez. Hala, gizarte zibilak, etengabeko ikaskuntzari lotutako jardueren protagonistek eta gainerako euskal erakundeek parte hartu zuten, betiere Eusko Jaurlaritzaren koordinazioan oinarrituta.

Testuinguru horretan, Lanbide Kualifikazio eta Prestakuntzako Euskal Institutuak dokumentu bat landu zuen, "Etengabeko Ikaskuntza: etorkizunaren gakoa" izenburua zuena. Dokumentu horrek Euskal Herriaren testuinguruan ezartzen ditu funtsezko mezuek eta gure Erkidegoko administrazioak, erakundeak eta pertsonak hobeto kokatu nahi izan ditu beren ezagutzak eztabaidagai batzuetan eskaintzeko eta, nolana ere, etengabeko ikaskuntza gure artean errealitate bat izatea lortzeko helburua berenganatzeko.

Bestalde, Euskal Herriaren burututako konsulta prozesuaren emaitza gisa, Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontsei-



luan, "Euskal Autonomia Erkidegoak etengabeko ikaskuntzari buruz Europako Batzordeak abiarazitako eztabaidari egindako ekarpena" dokumentua onetsi zuen. (Dokumentu horren laburpena Europako Batzordearen web orrian aurki daiteke ingelesez, etengabeko ikaskuntzari buruzko atalean).

Bi dokumentuetan hauxe da azpian dagoen ideia, bizitzan zeharreko ikaskuntza gauzatzeko guztiok elkarrekin lan egitea dela modurik onena, partekatutako erantzukizun senaz ondokoak lortzeko:

- gizarte integratzailea eraikitzea, guztiak bizitza osoan zehar kalitatezko ikaskuntza helmenean jartzeko aukera berdinak eskainiko dizkiena, eta hezkuntza eta prestakuntza erregulatzen duten arauak, ezeren gainetik eta batez ere, pertsonen premietan eta itxaropenean oinarrituko dituen;

- hezkuntza eta prestakuntza emateko moduak eta ordaindutako lana antolatze modua aldatzea, horrela, jendeak bere bizitzan zehar ikasi ahal izateko eta ikaskuntza, lana, aisia eta familiarterako bizitza bateratu ahal izateko;

Etengabeko ikaskuntzak hauxe bermatu behar du; Europako hiritarrek aukerak berak izatea eraldaketa sozialak eta ekonomikoak inposatzen dituen eskarietara egokitze

- sektore guztietan hezkuntza eta kualifikazio maila orokor gorenak lortzea, kalitate handiko hezkuntza eta prestakuntza eskaintzen dela bermatzea eta, aldi berean, hiritarren ezagutzak eta gaitasunak lan baldintzen, lekuen antolamenduen eta lan metodoen eraldaketara egokitzen direla ziurtatzea;

- pertsonak animatu eta prestatzea modu aktiboagoan parte har dezaten bizitza publiko modernoari dagozkion maila guztietan eta, bereziki, bizitza politikoan eta sozialean.

Memorandumaren inguruan Estatu kide guztietan burututako kontsulta prozesuaren ondorioz, Europako Batzordeak "Etengabeko ikaskuntzaren Europako gunea errealitate bihurtzea" komunikazioa ezagutzera eman zuen.

Dokumentu honetan, hezkuntza eta prestakuntza politika etorkizunean garatzeko esparru gisa aurkezten da ikaskuntza, eta datozen urteetarako jarduerarako proposamenak formulatzen dira, esate baterako eremu haue- tan: jarreraren eta kualifikazioen aintzatespena, informazioa, orientazioa eta aholkularitza eta ikuspegi pedagogiko berritzaileak.

Batzordeak berebiziko garrantzia duen zeregina ziurtatzen die Sokrates, Leonardo da Vinci eta Gazteria programei etengabeko ikaskuntzaren Europako gunea eratzeke garaian. Bereziki, Leonardo da Vinci programa, berrikuntzari eta esperimentazioari buruz duen ikuspegiarekin eta hezkuntza sistemen egokitzapenean duen eraginarekin, oso baliabide eraginkorra da proposa-

menetako asko aurrera eramateko. Programa horren bidez, Batzordeak ikasteko moduari buruzko ikerketan eta esperimentazioan lagundu nahi du baita Europar hedadura duten IKTetan oinarritutako ikaskuntza garatzeko helburua duten proiektuetan ere.

Gainera, Komunikazioak esparru orokor bat ezartzen du prestakuntza eta hezkuntza politiketarako, eta esparru horren barruan Europako prestakuntza eta hezkuntza programak baloratzeko estrategietan sartuta egon behar du. Komunikazioak hezkuntza sistema formalak egokitzeko premia azpimarratzen du eta koherenteak eta orokorrak diren strategi osagai batzuk definitzen ditu, agintari nazionalai egokitzapen horretan laguntzeko.

Baina Batzordeak ez du kontuan hartzen Europako herrialde askotan hezkuntza eta prestakuntzari dagozkien gaitasunak deszentralizatuta daudela eta eskualdeetako gobernuetan daudela. Beraz, eskualde eta tokiko agintariak dira hezkuntza eta prestakuntza sistemen benetako egokitzapena egin dezaketenak.

Bestalde, Memorandumak etengabeko ikaskuntzari buruz adierazten duen funtsezko mezuetako bat nabarmendu behar da, hain zuzen ere ikaskuntza pertsonengana hurbiltzeari buruzkoa. Izan ere, mezu horretan argumentatzen da eskualdeko eta tokiko inguruneak bizitzan zeharreko ikaskuntzan duen garrantzia. Hala eta guztiz ere, nire ustez koordinaziorako metodo irekiak, Estatu kideentzat erreserbatutakoak, tokiko eta eskualdeko heda-

dura baztertzeko arriskua dakar ondorioz, kontuan izanik garrantzi handikoa dela gai honetan, gaitasunak eskualde eta tokiko administrazioetan daudela hain zuzen, eta zalantzarik gabe interesatuta dauden eragile guztiek ekarritako baliabideen mobilizazioa tokiko mailan eraginkorragoa delako, gainera.

Eusko Jaurlaritzaren ustez funtsezkoa da ezagutzaren Europa eraikitzeke prozesu horretan eskualdeen parte-hartze aktiboa bermatzea, eskualdeak baitira kasu askotan beharrezko gaitasunak dituztenak, eta horretarako ezinbestekoa izango litzateke Europako Batzordeak eskualde eta toki mailan ere elkarriketak ezartzea.

Eskualdeetako agintariek, lehen adierazi den bezala, gero eta erabaki maila handiagoa berenganatu dute, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan ez ezik gizarte zerbitzuen eremuan ere. Zerbitzu horiek ezinbesteko osagaia dira etengabeko ikaskuntza garatzeko, zalantzarik gabe. Gizarte laguntzaren sare egokirik gabe oso zaila baita familia bizitza ikaskuntzaren eta lanaren bizitzarekin bat egitea.

Begien bistakoa da ikaskuntza pertsona guztiengana hurbiltzeko prozesua eraginkortasunez antolatzeke bide bakarra eskualde eta tokiko agintariek burutzea dela, beroiek baitira horretarako baliabide materialak ezagutzen dituztenak eta egokitu beharrekoak. Izan ere, Memorandumak berak etengabeko ikaskuntzari buruz adierazitako ideia berritzaileenetako bat pertsona ikaskuntzaren muin gisa hartzea da, prestakuntza eskaintza gune nagusitik aldentuz, pertsona bakoitzaren premietara egokitu beharko baita.

Ugariak dira Europako Batasun osorako planteatu diren erronkak etengabeko ikaskuntzaren Europako gunea errealitate bihurtzeko nahi horretan, eta erronka horiei aurre egiteke ezinbestekoa da eskualde eta tokiko agintarien parte-hartzea.

Adibidez, Lisboan ateratako ondorioen 26. puntuak prestakuntza zentroak balio anitzeko tokiko ikaskuntza-





G A I A

Bizitza osoan zehar ikasten

G

Florentziako foruma

zentro bihurtzea proposatzen du, guztiak Internetera konektatuta eta adin guztietarako zabalik egongo direnak. Berebiziko garrantzia duen erronka bat da Estatu kide guztientzat, eta berriro ere ezingo da aurrera eraman eskualde eta tokiko agintariak parte hartzen ez badute, zentro horien titularrak diren aldetik.

Era berean, Lisboako ondorioen 38. puntuak Kontseiluaren lehentasunak biltzen ditu, hain zuzen ere aplikaziorako estrategia deszentralizatuen eta lankidetzazkoen alde. Horretarako, beharrezkoa da eskualde eta tokiko agintarien helmenean Erkidegoko baliabide gehiago jartzea zenbait ekimen bultzatzeko asmotan, esate baterako, ikaskuntzaren eskualdeak edo hiriak eratzea, nazioz gaindiko probetxuzko lankidetzak didaktikoak garatu ahal izateko.

Azken finean, eskualde eta tokiko gobernuak dagokien erantzukizuneko eta estrategiazko zeregina azpimarratu behar dugu etengabeko ikaskuntzaren inguruko ekintza desberdinak garatzeko orduan, toki mailan nahiz Europako Estatu desberdinetako eskualdeen artean ahaleginak bat eginez, betiere prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuetan interes komunak badiutuzte eta Europako Batasunaren barruan kulturarteko trukea eta estrategien trukea sustatu nahi badute.

2.- Euskal Herrian aplikatutako estrategia

Historian zehar, Euskal Herriak autogobernu maila handia izan du, XIX. mendera arte iraun izan duten legegitzarako eskumen zabalekin. Gorabe-

hera desberdinen ondoren, Euskal Herriko eskubide Historikoak Kontzertu Ekonomikora muriztuta geratu ziren, erregimen ekonomiko-tributario bat izanik, ogasun propioa izatea ahalbidetzen duena eta estatuarekin hark eskainitako zerbitzuen ondorioz egin beharreko ekarpenak ituntzen dituenak. Kontzertu horiek Frankoren diktadurak indargabetu zituen.

1978ko Espainiako Konstituzioak Erkidegoen estatua ezarri zuen Espainian. 1979an Gernikako Autonomi Estatutua onetsi zuten, Euskal Herrirako oinarritzko erregulazio instituzionala osatzen duena, eta Kontzertu Ekonomikoen gain Euskal Herriari dagozkion legegitzarako eskumenetako batzuk lehengorazten dituenak.

Gernikako Autonomi Estatutuak, erabat garatzeko badago ere, transferitu izan diren gai batzuetan garapen-maila handia lortzea ahalbidetu du, hain zuzen ere 2002rako ia 6.000 milioiko aurrekontua duen administrazioan zehazten dena, aurrekontu horretatik gutxi gorabehera %32 osasunerako eta %30 hezkuntzarako izanik, tarte handiagoaz herrizaingoa (%7), justizia (%5) eta industria (%5) daudelarik.

Zehazki, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan, Gernikako Autonomi Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren erabateko eskumenak adierazten ditu hezkuntza gaitan, eta maila, gradu, mota eta espezialitate guztietan. Beraz, dagoeneko autogobernuaren 20 urte baino gehiago dira orain gozatzen dugun kalitatezko euskal hezkuntza sistema garatzea ahalbidetu dutenak.

Eusko Jaurlaritzak gure herrialdea garatzeko lehentasun eta estrategia gisa hartzen du bere gain Etengabeko Ikaskuntza, eta horretarako estrategia batzuk zehaztu ditu ezagutzen oinarritutako gizartean aurrera egin ahalizateko, horrela Europa munduko gizarte lehiakorrena, dinamikoena eta sozialena bilakatzen lagunduz. Ondorioz, 2001eko urrian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barruan Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntza Ministeriordetza sortu zuten eta bere menpe Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritza Nagusia eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusia, besteren artean ondoko funtzio hauek garatzeko asmotan:

- Etengabeko ikaskuntzarako ekintzak diseinatu, definitu eta aplikatzea, ezagutzaren gizarte berrian sartu eta es-

Begien bistakoa da ikaskuntza pertsona guztiengana hurbiltzeko prozesua eraginkortasunez antolatzeko bide bakarra eskualde eta tokiko agintariak burutzeari dela, beroiek baitira horretarako baliabide materialak ezagutzen dituztenak

kaintzen dituen aukerak aprobetxatu ahal izateko eredu bat gauzatzeko beharrezkoak baitira eta

- Lanbide Heziketa eta etengabeko ikaskuntzarako politikak definitzea, bizitza osoan zehar kualifikazioak lortzea edo gehitzea berekin ekarriko dutenak.

Ondorioz, Etengabeko Ikaskuntzaren eremu horretan Euskal Herria ezagutzaren gizar-tean barneratu nahi da, bizitzan zehar ikasteko kultura sortuz, hiritar guztiei bizitzan zeharreko kalitatezko ikaskuntzarako sarbidea izateko aukera berdinak eskainiz eta ikaskuntza, familia bizitza, aisia eta lanerako plan pertsonalizatua lantzea ahalbidetuz.

Horretarako, funtsezko osagaia gure Autonomia Erkidegoan informazioaren gizar-teak izan duen garapena izango da. "Euskadi informazioaren gizar-tean" plan estrategikoari esker, gaur egun, Euskal Herrian familien ehuneko handi batek Internetera konektatutako ordenagailu pertsonal bat izatea ahalbidetu dugu, baita sareak eskaintzen dituen abantailak ere ateratzeko beharrezkoa den prestakuntza izatea ere. Izan ere, 2000. urtearen amaieran euskal populazioaren %30ak Internet erabiltzen zuen eta 2005. urterako euskal populazioaren %65ak izango du Internetarako sarbidea.

Lanbide Heziketari dagokionez, esan beharra dago Euskal Herrian ezarritako dugun prestakuntza sistemaren oinarria haxe dela, Lanbide Heziketa guztiak Lanbide Kualifikazioen Sistemara lotuta egotea, eta bere helburu nagusia jarduera produktiboaren eremu desberdinetan lortu behar den lanbide gaitasunaren ezaugarriak, hedadura eta mailak identifikatzea. Hau da, teknologiararen eta antolamenduaren ikuspegitik ekonomiaren eremuko premiei eta eraldaketei erantzungo dieten kualifikazio batzuk definitzea, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiak antzeman dituen bezalaxe.

Gaitasuna lortzeko bide gisa prestakuntza ezartzeko lana erraztearren,

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak Prestakuntza Katalogo modular bat ezarri du kualifikazioen errepertorioari lotuta. Nabarmen-tzekoa da berariazko moduluez edo modulu teknikoek gain, katalogo horretan oinarritako modulu batzuk biltzen direla, mailaka, ezagutzaren gizar-tean beharrezkoak diren gaitasun eta jarrera batzuk adierazten dituztenak: komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, zenbakizko adierazpena eta adierazpen espaziala, eta eremu zientifiko-teknikoa. Hori guztia etengabeko ikaskuntzari buruzko funtsezko mezuarekin bat etorri: "Guztiontzako funtsezko gaitasun berriak".

Bestalde, "Ikaskuntza baloratzea" mezuari dagokionez, Lanbide Heziketaren Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeke Euskal Agentziak dispositibo bat abiaraziko du ikaskuntza ez-formalaren edo informalaren bidez pertsona batek lortutako gaitasunak ezagutu eta ebaluatzeko.

Lanbide Heziketako Euskal Sistemak euskarritzat duen beste funtsezko oinarria Lanbide Heziketako Zentro Integralen Sareak osatzen du. Izendapen horren arrazoia haxe da, zentro ho-

**Ikuspegi orokorra-
go batetik, eta
Euskal Herria bizi-
tzan zeharreko
ikaskuntzari lotuta-
ko estrategiaz horni-
tzearen,
Etengabeko
Ikaskuntzaren
Liburu Zuria landu
da, une honetan
Eusko Jaurlaritzako
Sailen barruan
eztabaidagai izanik**

riek hasierako lanbide-heziketan dau- den gazteei, langabetuei eta langileei prestakuntza ematen dietela. Lanbide Heziketako zentro integralen sare horrek teknologia berrien oso sare aurre- ratuak ditu instalatuta. Azken belaun- diko ikasgela digital interaktiboek horni- tuta daude, ordenagailu bakoitzeko lau ikasle izanik erabiltzaileen batez bestekoa, eta hiru urtetan baino gutxia- gotan eskuratu dira.

Era berean, Lanbide Heziketa mota hau ematen duten 72 zentroetatik 6k EFQMren 400 puntuko kalitate ziurta- giria lortu dute, 32k ISO 9002 ziurtagiria eta 14k EFQMren 300 puntuko.

Familiek nahiz ikastetxeek infor- matika eta prestakuntzako baliabideak eskueran izan ondoren, haiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko beharrez- koak, 2003ko udaberrian on-line pres- takuntza programa batzuk euskal hiri- tar guztien helmenean jarriko dira, hiz- kuntzak ikasteko, oinarritako gaitasu- nak lortzeko edo horietan sakontzeko, eta ezagutza eremu anitzen barruan ezagutzak zabaltzeko. Horrek guztiak Memorandumaren eta Komunikazioa- ren beste funtsezko mezu batean aurrera egitea ahalbidetuko baitigu, "Ikaskuntza pertsonengana hurbiltzea", alegia.

Ikuspegi orokorra go batetik, eta Euskal Herria bizitzan zeharreko ikas- kuntzari lotutako estrategiaz hornitze- arren, Etengabeko Ikaskuntzaren Libu- ru Zuria landu da, une honetan Eusko Jaurlaritzako Sailen barruan eztabaida- gai izanik. Ondoren, gure Erkidegoko gainerako erakundeek (Aldundiek eta Udalek), bizitzan zeharreko ikaskun- tzarekin zerikusia duten eragileek (prestakuntza zentroek, kultur etxeek, hiritarren zentroek, irakasleen elkarte- ek eta abar) eta orokorrean hiritarrek eztabaidatuko dute.

Pertsona guztientzat etengabeko ikaskuntza sustatzea ahalbidetuko duen eta jarduera praktikoetan gauza- tuko den estrategia koherentea lortze- ko beharrezkoa da:

- helburu bat finkatzea: etengabeko ikaskuntzaren kultura sortzea;

- helburu horren aurrean gizar-tean



antzematen den sentsibilizazioa neur-tzea;

- helburuaren garapenak duen ahalmena edo ikasteko benetan dau-den aukerak aztertzea;

- helburua lortzea eragozten duten zailtasunak edo oztopoak identifika-tzea (ekonomikoak, sozialak, finantza-rioak, kulturalak, antolamenduari da-gozkionak eta abar);

- oztopoak ezabatzeko plan bat di-seinatzea, horregatik bizitzan zeharre-ko ikaskuntzaren politika esfera pribat-uan interbentzionismo publikoaren adierazpen gisa hartu gabe ordea, eta;

- lortutako emaitzak ebaluatzea, bi-zitzan zeharreko ikaskuntzaren ohitura eta kultura lortzeko aurrez ezarritako helburuarekin bat etorritik.

3.- Etengabeko ikaskuntza, Erki-degoaren hezkuntza eta prestakun-tza programak baloratzeko estrate-gien garapenerako esparrua. Balora-ziorako estrategia horretan eskualde-ek duten egitekoa

Europako Sokrates, Leonardo da Vinci eta Gazteria programen hasiera-ko fasearen ondoren, eta dagoeneko bigarren fasearen erdian gaudela kon-tuan izanik, lorpenetako askok ez dute-la hezkuntza eta prestakuntza sisteme-tan esperotako garrantzia eta eragina izan ziurtatu ahal izan da.

Programa horiek nazioz gaindiko lankidetzarako esparrua ahalbidetzen dute hezkuntzako eta Lanbide Hezike-tako sistemen eta praktiken kalitatea hobetzeko, berrikuntza bultzatzeko eta Europan izango duten hedadura sustatzeko. Berrikuntzarako eta esperi-mentaziorako laborategi antzeko bat izan behar dute, ondoren, hedapen eta baloraziorako estrategia egokiaren bi-dez, hezkuntzako eta Lanbide Hezike-tako sistema eta praktiketara kalitatez-ko emaitzak transferitzeko, eta horrela Europako Batasunaren erronka berriei erantzungo dieten hezkuntza eta pres-takuntza sistemak lortzeko, ezagutza-ren gizarte berriari eta bertako hirita-rrin mugikortasun libreari begira.

Hala eta guztiz ere, orain arte ez da-

go ondo definitutako balorazio estrate-giarik eta hedapenak ez ditu esperota-ko helburuak lortu. Beraz, premiazkoa da programa horien emaitzak hezkun-tza- eta prestakuntza-sistemetara ahal-men handiagoaz transferitzea ahalbide-tuko duen estrategia batez hornitzea.

Europako Batzordeak "Leonardo da Vinci programa baloratzeko estrate-gia" dokumentuarekin eztabaida bati hasiera eman zion programa honen ba-lorazioari buruz bereziki.

Europako Batasuneko hezkuntza programen artean Leonardo da Vinci programak duen aparteko izaera Kon-tseiluak hartutako Erabakiaren emaitza da, programaren bigarren fasea ezar-tzen duena, alegia. Erabaki horren ara-bera, programaren lehenengo fasean izandako lorpenak aztertzeo neurriak hartu behar dira, baita Lanbide Hezike-tako eremuan Erkidegoak izan dituen ekimenak ere.

Baloraziorako estrategia hori eten-gabeko ikaskuntzaren esparru oroko-reen kokatu behar da eta, ikuspegi ho-rretatik, Europako Batzordeak balora-ziorako estrategia hori planteatu du bi-zitzan zeharreko ikaskuntzaren Euro-pako gunea eraikitzeo oinarritzat har-tuko diren ardatzak kontuan hartuta, eskala guztietan, alegia eskualdeen mailatik Erkidegoaren mailaraino. Hau da: mugikortasuna, kualifikazioen gar-dentasuna, ikaskuntza informaldaren edo ez-formaldaren identifikazioa, eba-luazioa eta aintzatespena, hizkuntza gaitasunak, hezitzaileen prestakuntza eta enplegarritasuna.

Europako programak baloratzeko estrategia honetan berriro ere funtsez-koa da eskualde eta tokiko gobernuen egitekoa, zeren eta, Batzordeak berak zehazten duenez baloraziorako estra-tegia honen osagai nagusietako bat hauxe baita: "hedapenerako estrategia koherentea, ezagutzaren kudeaketan eta informaziorako alde zuzeneko jar-dueretan oinarritua".

Beraz, eskualdeek eta tokiko era-kundeek informazioa hiritarren artean zuzenean hedatzeko garaian betetzen duten zeregina azpimarratu behar da,

zalantzarik gabe lehenengo harreman puntua baitira informazioa helarazteko garaian eta funtsezkoa da hedapenera-ko bide gisa duten ahalmen horri eteki-na ateratzea. Bestalde, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremu jakin bate-an diharduten tokiko edo eskualdeeta-ko eragileen ezagutza zehatza denez, eta hiritarrek eremu horietan dituzten prestakuntza premiak kontuan izanik, zalantzarik ez dago hedapenerako es-trategia koherenteagoak eta dagozkien testuinguruetan ezarritakoak antola di-tzaketela, hain zuzen ere hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan dihardu-ten eragileen interesei hobeto eran-tzungo dietelako eta beraz hezkuntza eta prestakuntza sistemetan inplemen-tazio eta eragin handiagoa lortuko de-lako.

Batzordeak behin eta berriro azpi-marratzen du beharrezkoa dela Euro-pan nahiz estatuen mailan prestakun-tza sistemak barneratzea, programen emaitzak ezagutzera emateko. Hori ez da inolako kasutan nahikoa informazio sistema horiek eskualde eta toki maila-ra jaisten ez badira, are gehiago Batzordeak berak programen emaitzak eza-gunak izatea lortu nahi duenean, ez ba-karrik erabakien erantzule diren per-sonen eta prestakuntzaren profesio-nalen artean, oro har hiritar guztien ar-tean baizik.

Eskualde eta tokiko erakundeek hi-ritarregana zuzendutako hedapen es-trategia eraginkorragoak ez ezik nazioz gaindiko lan handia ere egin dezakete. Izan ere, Europako programei eta eki-menei esker, baita eskualdeen eta hi-rien arteko senidetzeari esker ere, orain dauden nazioz gaindiko harre-manak eta lan sareak ugariak dira es-kualde eta toki mailan. Beraz, eskualde



eta tokiko erakundeak ahalmen handiko eragile gisa agertzen dira hedapenerako estrategia koherenteari ekiteko oinarri gisa.

Ikuspegi horretatik, nabarmentzekoa da Komunikazioak etengabeko ikaskuntzari buruz egindako proposamena, hain zuzen ere Leonardo da Vinci eta Sokrates programen bidez irakasleen eta hezitzaileen prestakuntzarako sare bat sortzen lagunduz testuinguru formaletan eta ez-formaletan esperientzia berritzaileak trukatzearren, eta aldi berean Erkidegoaren barruan transferentziarako baldintza egokiak ezarriz. Hala ere, sare horrek eragin handiagoa izango du sare handiago batean integratuta badago, eskualdeetako agintariak eta profesionalen hiriek parte hartzeko. Ez dezagun ahaztu proiektu baten emaitzen aplikazio praktikoa bazkideek errealitate sozialarekin eta ekonomikoarekin harremanetan jartzeko duten gaitasunaren menpe dagoela. Zentzu horretan, eskualde eta tokiko agintariak baita solaskide sozialek ere funtsezko zeregina bete dezakete emaitzak aplikatzean, eskualde eta tokiko agintarien lehentasunezko zeregina nabarmenduz tokiko mailan interesatuta daudenen artean eta Europako Estatu desberdinetako zona geografikoen artean elkarrekin mobilizatzeko garaian, eta betiere garapen ekonomiko eta sozialeko sektoreekiko eta, beraz, prestakuntzaren eta lan merkatuaren eremuko premiekiko antzeko ezaugarriak izanez gero.

Horregatik, ezinbestekoa da eskualde eta tokiko erakundeek sektore zehatzetan baloraziorako neurri anitzak aplikatzean bete dezaketen zeregina. Eta horri buruz nabarmendu beharra dago eskualdeek mugikortasunerako ekintzetan betetzen duten zeregin estrategikoa. Eskualde eta tokiko

erakundeak indar motrizak dira, eskualdeetako ekonomiak bultzatzen dituztenak premiei hobeto erantzungo dien ikaskuntza eta hezkuntza ingurunea sortzeko beharrezkoak diren elkarrekin ezartzeko garaian, betiere mugikortasun profesionala areagotzeko.

Eskualde eta tokiko erakundeak sarritan gaitasunak eta mugikortasuna hobetu ditzaketen neurri baliagarriak aplikatzen saiatzen dira, baina gauzatu ezin dituzten neurriak dira laguntza finantzariarik ez dutelako. Europako Batasunaren aldetik laguntza finantzario handiagoa lortuz gero gehiago aprobetxatu ahal izango litzateke eskualde eta tokiko erakunde horiek ekimenerako duten gaitasun handia.

Mugikortasun profesionalak eta geografikoak pertsonak gaitzen dituzte eta erabaki libreak eta erantzukizunezkoak hartzeko aukera ematen diete. Hala ere, neurri egokiak hartu behar dira mugikortasun geografiko handiagoko garapen jasangarriaren eta Europako Batasunaren kohesioaren kaltetan lortu ez dadin. Mugikortasun geografikoak desoreka ekonomikoak sor ditzake, bereziki landa eremuetan, eremu horietan gazteen mugikortasun handiagoak populazio zaharragoa baita-
kar berekin.

Baloraziorako strategiaren funtsezko beste osagai bat hau da: "ziurtatutako kalitate irizpideak definitzea proiektuaren diseinuaren fasetik bere-
tik hasi eta hautespen, segimendu eta ebaluaziorako fase guztietan zehar aplikatzeko".

Etengabeko ikaskuntzari buruzko Komunikazioak adierazten duenez, elkarrenganako konfiantza eta hezkuntza sistemen gardentasuna lortzeko gai diren kalitate arauak ezartzea funtsezko printzipioa da, ikaskuntzaren ebaluaziora buruzko ikuspegi berri baten oinarria.

Lehen esan bezala, proiektu baten arrakasta garatzen duen elkarrekin sendotasunean datza, baita proiektuaren emaitzak prestakuntza eta hezkuntza sistemetara transferitzeko duen gaitasunean. Horri buruz, eskualde eta tokiko erakundeek espe-

rientzia ziurtatua eta luzea dugu dihardugun lan sareen iraunkortasunean eta sendotasunean baita emaitzak prestakuntza sistemetara transferitzeko gaitasunean ere. Ez dugu ahaztu behar kasu askotan eskualde eta tokiko administrazioak direla prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuan eskumena dutenak.

4.- Ondorio gisa

Europaren eraikuntzaren historian zehar, eskualde eta tokiko gobernuek eraginkortasuna erakutsi dute Erkidegoan era guztietako politikak aplikatzeko garaian: hezkuntza, ingurumena, arrantza, nekazaritza, enplegua eta abar. Logikoa hau da, gobernu horiek gero aplikatuko dituzten politike-
tan gehiago parte hartzea.

Bestalde, kontuan hartu behar du gu demokrazia eraginkorra oinarritik hasten dela. Iritzi publikoak Europako Batasuna onetsiko du betiere eskualde eta tokiko ordezkariak erabat parte hartzen dutenean, eta Erkidegoko enbaxadore gisa lekuan bertan jarduten dutenean. Batasunak bere eskualdeen subiranotasuna errespetatu behar du, bere Estatu kideen subiranotasuna errespetatzen duen bezalaxe; batik bat, legegintzarako gaitasuna duten eskualdeei dagokienez.

Eskualdeak eta tokiko erakundeak ezinbestekoak dira Europa demokratikorako: ez dira beste gobernu maila batzuen subsidiarioak, errespetatu behar-
reko eskumenak eta eskubideak baitituzte. Beraz, gizarte zibilarren lehenengo adierazpen politikoa dira, baita onena ere. Oinarritiko demokrazian arreta handiagoa jartzeak esanahi berria eman diezaioke Europari.

Eraikitzen ari garen Europak, hiritarrenak eta integratzaileak, eta kultur aniztasunean aberatsak, eskualde eta tokiko gobernuen parte-hartzea behar du, bere bizitza sozial eta demokratikoa-
ren funtsezko osagai direlako. Kontuan hartu behar da, gainera, hiritarrendik gertuen dauden organo hautatuak direnez hiritarren Europaren oinarria osatzen dutela.



Balorizazioa. Kontzeptu berria al da?

Aurrera begira, seguruenik, asko entzungo dugu balorizazio hitza. Zer adierazi nahi du balorizazioak?

Pentsa dezagun Dinamarkan esperientzia bat egin dela, esperientzia hori amaituta dagoela, eta ebaluatu ondoren egoia dela iruditzen zaigula, hau da, esperientzia gure ikastetxean aplikatzeko interesgarria dela deritzogula.

Horretarako, aukeratu dugun esperientzia gure ikastetxean aplikatzeko egokitzen dugu: hizkuntza, ohiturak, ikasle kopurua, bitartekoak... Horri deitzen al zaio esperientzia balorizatzea? Ez. Hori esperientzia egokitzea da. Eta toki askotan egiten bada, esperientiaren hedapena gertatuko da.

Zer egin behar da balorizazioa gertatu dela kontsideratzeko? Egokitu dugun eta aplikatu nahi dugun esperientiari, gure ustez hobetuko dion elementuren bat edo batzuk gehitzea izango da balorizatzea. Eta modu horretan, balorizatuta dagoela aplikatu guretzat izango den esperientzia berria.

Hobetze horri deitzen zaio esperientiaren, produktuaren edo dena delakoaren balorizazioa. Jokatzeko modu bat da. Sistematizatu daitekeen praktika bat.



ALICE COPETTE: Europako Batzordeko Kidea da. Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza Nagusian ari da lanean, Bizi osoan zehar ikasten gaia lantzen.

Eskualdeak estatukideak baino askoz gertuago daude herritarrengandik. Proiektuen balantzea eta zabaltzea egiten denean, bertako jendearekin egon behar da. Bizi osorako hezkuntzaz ari garenean, ildo nagusiak denon artean ezarri beharko ditugu; estatuak, eskualdeak, egitura lokalak, enpresak, sindikatuak eta bestelako elkarteak, baina zehaztapena toki bakoitzean egin beharra dago.

Eskualdeak egitura idealak dira herritarren beharrak zein diren jakiteko eta eguneroko praktikan protagonistak izan daitezke.



JANE DAVIDSON: Galeseko Asanblada Nazionaleko Hezkuntza sailburua

Galesek Euskal Herriarekin parekotasun batzuk baditu. 3 milioi biztanle ditu eta galesa % 25ak ezagutzen du.

Hezkuntzaren antolaketa nagusia estatutik badator ere, hainbat arlotan geroz eta esku-hartze handiagoa dugu.

Britainia Handian dezentralizazio prozesua gertatzen ari da. Eskozia eta Gales eskumenak lortzen ari dira pixkanaka. Hori guztia, heziketarako eta prestakuntzarako oso interesgarria da.

Eskualdeek lekua irabazten joan behar dute, ematen zaienaren zain egon gabe.

G A I A

Bizitza osoan zehar ikasten

Florentziako foruma



Imanol Urbietta

Filosofoa, musikaria, irakaslea,
psikomotrizista, ipuinlaria...
artista



Haurren beharretara
egokitzeko aldatu nuen nire
irakasteko modua eta hortik
sortu dira nire teoria berriak



Imanol Urbietta

E

Zarauzko ikastolan hasi nintzenean andere oek esaten zuten, ekarri dugu gizon bat musika irakastera eta haurrak aspertu egiten dira. Ez ditu bereganatzen haurrak . Han piztu ziren argi gorriak eta gerturatze lanari ekin nion. Garbi neukan egokitu egin behar nuela. Horrela, beharretik ikasten joan nintzen, haur horiengana gerturatu eta ibilian-ibilian ikasi dut

Txiki-txiki-txikia ikusten naiz kalean haunditzen, haunditzen, ari naiz haunditzen txikia izanik asko maite zaitut nik

Ba al da abesti hori ezagutzen ez duen irakaslerik?

Alaken!, Ranroberra!, Euskera oi euskera!, Akerra ikusi nuen milaka abesti aita bakarrarentzat: Imanol Urbietta.

Txiki-txikitatik musika izan du bere inguruan. Bertatik edan, bere barnean ongi hausnartu eta musika berria sortu du. Euskal Herriko herri eskola eta ikastola guztiak ezagutu dituzte Imanolek haurrei eginiko ehunka kantu. Euskal kulturaren eta hezkuntzan haurrentzako zegoen hutsunea ongi betez, irakasleek erreferentzia ederra eta ia bakarra izan dugu urte askotan.

Haurrak eta irakasleak hezi ditu Imanolek urtetan. Musika irakasle ugari igaro dira bere ingurutik. Bere euskalzaletasuna, haurrei zien maitasuna eta musika nola uztartzen zituen ezagutzeko zorte izugarria izan dugu askok.

Imanol artista al da?

Inoiz ez diot neure buruari planteatu artista naizen edo artista izan nahi dudan. Txikia nintzela ea handitan zer izan nahi nuen galdetu zidaten. Orduan 3 edo 4 urte omen nituen eta zera erantzun omen nuen: "Nik ofizio alegreena izan nahi dut". Eta etxean, kalean eta inguruan hori onartu egin izan dute. Nire eskuetatik jaso dena, behatzetatik irten dena, ongi onartua izan da.

Badago Imanol sortzailea, ezta?

Ez dakit. Imanol larritua bai, badago. Ihes egin nahi izan duen norbait izan naiz eta ihesaldi horretan sortzaile izatea egokitu zait. Eskolako lanean zure eguneroko ogia, zure makina, zure erraminta, haurrak dira eta haurrak ixten zaizkizunean, ezin dituzunean bereganatu, zerbait egin behar duzu gustura egon daitezten eta zurekiko konfiantza har dezaten.

Helduekin aritzea edo haurrekin aritzea ez dagauza bera. Zarauzko ikastolan hasi nintzen eta hasieran haurrak oso urrun nabaritzen nituen. Hura ikusita aldatu nuen estiloa, bertan fruituak ikusi ez baziren ere. Gogoratzen naiz inoiz andereñoek esaten zutela: "Ekarri



dugu gizon bat musika irakastera eta haurrak aspertu egiten dira. Ez ditu bereganatzen haurrak”. Han piztu ziren argi gorriak eta gerturatze lanari ekin nion. Dena dela, hasiera gogorra izan zen, hots, hurrek beste interes batzuk zituzten konturatzea. Baina behin hori onartuta, garbi neukan egokituegin behar nuela. Horrela, beharretik ikasten joan nintzen, haur horiengana gerturatu eta ibilian-ibilian ikasi dut.

Imanol musikaria.

Magisteritza ikasi nuen eta pedagogo bezala Magisteritza Eskolan bertan hasi nintzen. Han ekin nion nire teoriak zabaltzeari. Izan ere, aurretik helduekin ibilia nintzen musika lantzen eta oinarria solfeoa zen. Hurrekin, ordea, desberdina behar zuen izan. Musika aldetik ongi pasatzea zen helburua: musikaren sentsibilitatea lantzea, kantatzea, instrumentuak lantzea, afinatzen ikastea... , behin ere pentsatu gabe handik kontserbatoriora joatea eta horrelakoak.

Jolas-orduan hainbat jolasetan erabiltzen zen musika, soka-saltoan eta abar. Baina, gela barruan musikaren irakaspena oso formala zen. Horrela, haurren beharretatik abiatuz sistema berria eskaintzen hasi ginen. Hurrek musika sistema arrunta ez zutela ulertzen ikusirik, txirula jotzen ikasteko ere bide berriak landu genituen, biribilen bidez eta abar. Gerora kora, tipleak, musikariak eta abar beharko zirela ikusten genuen, eta hurrekin musika landuz, gerorako harrobia elikatzen ari ginela ohartu ginen. Azken finean, musika haurren eta gazteen zerbitzura jarri zuten saiatu ginen.

Andoni Egañak *Luzea da bidea* zure biografia liburuan esaten du kantuan irakasten zenituela Geografia eta Matematika. Horrela al zen?

Nire tresna musika zenez, hori erabiltzen nuen ahal nuen guztietan. Niri beharretara egokitzea gustatzen zitzaidan, eta edukia modu dibertigarrian irakasteko, musika bertsoa bezala ateratzen zitzaidan, momentuan sortuta.

Nondik datorkizu musikarako zaletasun hori?

Zarauzko herriko plazan jaio nintzen, gaur egun musika plaza deitzen den horretan eta txiki-txikitatik entzun izan nuen musika. Etxean aitona bazuen piano bat eta hura tailerlean lanean jarduten zen bitartean han aritzen nintzen jo eta jo. 8 urte nituela, kanpo-koak etxera etortzen zirenean beraien-tzako jotzen nuen. Gerora ere, plazan musika jo behar zutenek askotan gure etxean uzten zituzten euren instrumentuak eta han aritzen nintzen bata eta bestea probatzen eta jotzen.

7 urterekin, jada, klarineta jotzen nuen herriko bandan. Entsaioen ordu-tegiak, diziplinak eta besteentzako jotoak asko lagundu zidaten. Zuk jo eta besteak dantzan ikustea pozgarria zen. Ni zoriotsua nintzen.


Imanol ipuinlaria.

Txikitan istorioak entzutea gustatzen zitzaidan. Gauetan etxera etortzen ziren esnezaleak esnea ekartzera eta han aritzen ziren kontu kontari. “Manolito ohera!”, esaten zidaten, baina nik aho zabalik jarraitzen nuen haien kontuak entzuten.

Kokles txakurraren ipuin tristea nola sortu zenuen?

Kokles txakurraren ipuina latinetik itzuli nuen. Italian ikasten ari nintzela ezagutu nuen eta gustuko nuen sentimenduak azalarazten zituen ipuin hura. Gerora norbaitek esan du haurrak negar arazten dituela, baina ipuin hori desdramatizatu egin behar da. Aitak txakurra zahartuta eta hilzorian dagoela ikusita, eta haurrak hiltzen ikusten badu tristetu egingo dela jakinda, gauean zubitik ibaira botatzea erabakitzen du. Tximista eta trumoiak ari direla, haize bolada batek txapela eramaten dio. Hori egin orduko, ordea, zera pentsatzen du: “Egin beharra zegoen. Egin dut. Eta orain, zergatik nago triste?”.

Nire ustez, haurrak mina oso gertutik bizitzen du. Sentsazio guztiak bizitzen ditu, eta mina ere bai.



Imanol psikomotrizista.

Gure bizitzan dena motrizitatea izan da. Beti jolasean aritzen ginen. Erregeek ezer gutxi ekartzen zuten eta hura urte osorako, gainera. Askotan, errege festak pasa eta egun batzuetara jostailuak desagertzen ziren eta hurrengo urtean agertzen ziren. Garai hartan edozerk balio zuen jolasteko, baita euliak ere. Orduan ez zegoen telebistarik eta iniziatiba handia geneukan.

Ikastolen Elkarteak espresioaren inguruko lan bat egitea eskatu zidan. Esan beharra daukat nire lan gehiengoa Ikastolen Federazioa presente egon dela. Orduan ez zen ezaguna psikomotrizitatea eta Martuteneko Irakasle Eskolara joan nintzen batean uztaiak zintzilik zeudela ikusi nuen. Hautsez betetako uztaiak ziren, erosi arren ez baitzekiten zertarako erabili uztai haiek eskolan. Gu esperimintatzen hasi ginen eta proposamen batzuk ere egin genituen. Zenbait musika-zinta argitaratu genituen eta hainbat material prestatu ere bai. Dena den, denboraz aurreratu ginela uste dut. Irakasleek orduan ez zuten horren beharrik ikusten. Ez zen ezagutzen sistema hori. Garai hartakoa da “Uztai gora-gora” kantua, gaur egun baliagarri dena, nire ustez.

Nik ezin
ditut haurrak
beldurtuta edo
deseroso ikusi.
Haurrak kasu
egiten badit oso
ongi, baina egiten
ez badit ere bai.
Musikarekin
laguntza eskaini
nahi diet hurrei
hur izateko.
Hezitzaileak
maitatu egin behar
ditu haurrak

Imanol maitatua eta maitalea.

Guda ondorenean eta anaia-arreba asko izanik, hamar, gurasoek ez zeukaten denborarik niri dedikatzeko, eta asko behar izan duen horietako naizenez, maitasuna faltan bota dut. Gauzak pikardiaz eginez lortzen nuen etxe-koen arreta, askotan paliza ederrak hartzeko balio izan bazidan ere. Baina etxean osorik ez neukana kalean aurkitzen nuen. Leku guztietan koadrila nuen: elizondoan, plazan, eskolan...

Musika jotzen aritzen nintzenean beti egoten zen gerturatzen zen norbait, begira egoten zena, eta askotan begirada hark beste zerbait ere eskatzen zuen.

Nik ezin ditut haurrak beldurtuta edo deseroso ikusi. Haurrak kasu egiten badit oso ongi, baina egiten ez badit ere bai. Musikarekin laguntza eskaini nahi diet hurrei haur izateko. Hezitzaileak maitatu egin behar ditu haurrak.

Imanol ikertzailea al da?

Gauza serioak esaten dituzue. Ni bizirik irten naizen bat naiz, beharretatik abiatu eta bizirik atera den bat. Bartzuk, pianojole izanda, beti pianoa jo-

tzen aritzen dira izugarrizko perfektioa lortu arte. Ni ez naiz horrelakoa izan. Oso estimatua izan naiz beti planak egiten aritu izan naizelako. "Manolito beti planak egiten", esaten zuten lagunek.


Imanol parte-hartzaileak?

Saltsa guztietan sartuta egon izan naiz. Akolito izan nintzen, koadrila ezberdinekin nenbilen, musika taldeak osatu nituen, Zarauzko Oleskariak zortzikoa eta abesbatza zuzendu nituen, musika eskola sortu nuen, Xirula Mirula... Eta haur taldeak kantu txapelketetara eramaten nituen. Nik haur guztiak eramaten nituen eta txarrenak han jartzen ziren lehenengo ile-ran gogo handiz abesten. Nola irabaziko genituen, bada, txapelketak? Baina hori zen filosofia, parte hartzea eta kantuari gustua hartzea. Behin, Pasaian, azkenak geratu ginen, baina jendea gure kanta kantatuz irten zen, oso alai eta eranskorra baitzen.

Andoni Egañari ere halako zerbait gertatu zitzaien, ezta?

Bai horixe! Bertsolari txapelketako finalean, Belodromoan, "Txoria nintzela, txoria nintzela..." txikitik ikastolan ikasitako abestia oinarri bezala hartu zuen, eta txapelketa irabazi ez ba-





zuen ere, jendea doinu hori kantatuz ir-
ten zen handik.

Afrika beltzean ere izan zinen. No- la joan zen hango esperientzia?

Eskolako giroan nobilela beltzen
erritmoa, dantza, sormena eta ahalme-
na ikertu nahi nituen. Jazz mundua no-
la aurreratu zen ikusita, jakin-mina
nuen. Ikusten nuen, bestalde, ia beltz
denek haurrak euren gainean erama-
ten zituztela eta Afrikan zebilen lagun
bati galdetu nion ea haur txikiak nola
moldatzen ziren jolasteko. Hark esan
zidan kalean, lanean, alea xehetzean,
lo hartzerakoan eta abar amari lotuta
egoten zirela, baina jolasteko lurrean
euren kasa ibiltzen zirela. Amarekin
duten mugimenduzko harremanak eu-
ren erritmoa garatzen laguntzen die,
beti erritmoan baitaude.

Hala, bertara joan ginen gitarra eta
guzti, grabazioak egin genituen eta be-
raiekin zoragarri pasatu genuen. Bete-
betean bizi dute musika. Behin, lau or-
duko saio bat bukatutzat eman genuen
eta bertako bat etorri zen bere ordularia
erakutsiz eta bi minutu falta zirela esa-
nez. Horrelako musika egarria zuten!
Musikaren bidez oso harreman zuzena
lortu genuen.

Azken egunean herri guztiak festa
bat eskaini zigun. Guk euren modura
dantzatzeko eskatu genien, ez katekis-
ta bezala, baizik eta beltzak bezala.
Dantza erotizatuak, paganismoaren ar-

tea... azaldu ziguten. Izugarria izan
zen.

Dantza egiteko orduan, munduko
gauza sinpleenak egiten dituzte. Han-
kak apenas mugitzen dituzte eta gorpu-
tzeko beste edozein atal erabiltzen du-
te.

Asko ikasi nuen, eta batez ere, esker
onekoak direla ikasi nuen.

Bestalde, eskola bat egiteko helbu-
ria hartu genuen eta hemen jasotako-
rekin lortu zen egitea.

Zure ustez, egin duzun lana ain- ztatetsia izan al da?

Pako Garmendiak behinesan zidan
"Hi beti izan haiz errekonozitua, baina
inoiz ez aipatua".

Zergatik zioen hori?

Ni naizen bezala naizelako.

Andoni Egañak egindako liburua-
ren kontrazalean agertzen den "Baka-
rrik eta libre badoa" abestiak honela
dio: "Bakarrik eta libre gaztea, poltsiko-
an eskuak, oinak arrastaka, luzea da bi-
dea... bakarrik eta libre gauean. Gauez
argitzen zaio bidea, argitzen zelaia,
zuhaitzak lurrean, gauez badoa gaztea.
Bidean zergatik? Berak ba ote daki? Zer-
tarako libre ta bakarrik? Adizak gaztea
apurtu kateak! Ez duk jakingo zer den
bakea... Kanta kantari badoa bide guz-
tien ildoan!"



Euskaraz sortutakoa eraman duzu atzerriera, ezta?

Beno, Santillana editorialak Euskal
Herrian sartu nahi zuen eta Giltza edito-
rialia sortu zuela uste dut. Hemen izan
ziren, Xirula Mirulako estudioetan gra-
batzen,

eta beraiek esaten zuten Musika Hez-
kuntzan ez zutela inoiz halako talde
konpetenterik aurkitu. Horrela, gure
materiala egokitu dute eta hor ibiltzen
gara ikastaroak eskaintzen Kanariar
Uharteetan, Granadan, Bartzelonan,
Madrilen eta abar. Hasi ginenetik, oso
harreman pertsonal onak izan ditugu.

Aurrera begira, zer egiteko asmoa duzu?

Egia esan, osasunak ez dit asko la-
guntzen. Hala ere, lanean jarraitzeko
asmoa dut.

Egin didaten omenaldiak animoa
eman dit eta honek bezalako elkarri-
ketek ere poza ematen didate. Baina
horren guztiaren aurretik pentsatua
nuen zer egin. Nire lana ez dut bukatu
oraindik.

Oraingo, bi lan aurreikusten ditut.
Bata, musika klasikoaren inguruan ha-
sitako lana bukatzea. Haur euskaldu-
nei norbaitek esan beharko die Mozart
nor zen, zer musika sortu zuen... hots,
pertsonea hura beraiengana hurbildu.
Errusian, Italian, Txekian... ibili gara
grabazioak egiten eta bideo formatoan
prestatzen. Euskal musikarien biogra-
fiak ere egiteko ditugu.

Bigarren lana 0-3 urtekoekin egiten
hasi garena da. Esperimentatzen ari ga-
ra eta proposamen bat egin nahi dugu.

Koru mundua, korala, kanonak,
polifonia... lantzeko materiala presta-
tuta daukat, baina forma emateko den-
bora behar dut.

Ikusten danez, ez da geldi egoteko
horietakoa gure Imanol. Inoiz ez da
izan eta zertarako aldatu orain? Jarrai
dezala, bada, horrela, eta ikus ditzagula
datozen urteetako fruituak.

Bitartean, bere bizitzari buruz infor-
mazio gehiago nahi duenak elkarriket-
tan honetan aipatu den *Luzea da bidea*
liburuan aurki dezake.

Teknologia Berriak



“Arbel elektronikoaren” magia Guztion helmenean dagoen berrikuntza



Pere MARQUES

Bartzelonako Unibertsitateko Autonomoko irakaslea

Kultura berriak prestakuntzan exijitzen zituen baldintzak eta tresna teknologiko berriak hezkuntza inguru-
neetan izandako aplikazio masiboa kontuan izanik, LOGSEU-2005ek curriculum edukien erabateko berrikuntza eta antolamenduari eta didaktikari dagokionez ikas-
tetxeetako aldaketa sakonen garapena adierazi zuen Europako Batasun osorako.

Gelaguztiek zuten “arbelelektronikoa”, proiektzio kanoi elektroniko batez osatutako sistema alegia, arbel zuri batean gainean bideoa, TB antenara eta Internetera konektatuta zegoen multimedia-ordenagailu batetik sortutako irudiak erreproduzitzen zituen. Bideo-kamera txiki bat ere bazuen (webcam), baita eskanerra eta inprimagailua ere. Azpiegitura horrekin (5.000 euro/gelako inbertsioa egitea eskatzen zuena), irakasleek eta ikasleek elkarrekin batera ikusi ahal izaten genituen bideo, telebista, disko optiko edo Interneteko web orrietako irudiak, testuak eta soinuak; dokumentuak eta argazkiak eskaneatu eta erakutsi ahal izaten genituen, eztabaidetan eta bideo-hitzaldietan parte hartu, informazio horietako edozein inprimatu edo grabatu eta abar.

Eskolak ez ziren lehengoak bezalakoak. “Azalpenezko” eskolak emateko joera handiagoa zuten irakasleek ere Interneten aurkitzen zituzten informazio eguneratuak aurkeztu ohi zituzten sarritan, grafiko eta irudi adierazgarri eta erakargarriekin, eta gainera landutako gaiekin zerikusia zuten web orriak bilatzera eta gelan iruzkintzera animatzen gintuzten. Irakasle “berritzaileenek” partaidetza maila handiko dinamika antolatzen zituzten gelan, aurretik liburutegian eta

“lan eremu autonomoetan” egindako lankidetzazko lanetan oinarrituta. Lan eremu horietan taldeentzako mahaiak eta Internetera konektatuta zeuden ordenagailuak genituen, ordutegi jakin batzuetan erabili ahal izaten genituenak “guardiako” irakasle-aholkulari taldearen laguntzarekin. Eta on-line kredituak ere egiten genituen, 12 urtetik aurrera curriculumean barne hartzen zirenak eta mundu guztiko erakunde homologatuek eskaintzen zituztenak.

Multimedia material horiek (prentsako gaurkotasunezko albisteak, ospe handiko erakundeen eta espezialisten web orriak...) sarritan gelan ikusi eta iruzkintzen genituenek, eskolak motibagarriagoak izaten ziren eta gaurkotasanari lotuagoak, ondoren gure kasa orri horiek berak eskolako edo etxeko sarbide puntuetan arakatzera bultzatzen gintuzten galdez betetakoak. Azkenean, mundu erreala eta eskolako mundua bat eginda; irudien mundua eta hitzaren mundua!

Ikastetxe bakoitzak ordenagailu “zerbitzari” bat zuen, “eskolako intraneta” kudeatzen zuena. Horrela, irakasleek eta irakasleek posta elektronikoko helbide bana genuen baita diskoko espazio bat ere (disko birtuala), bertan gure web orriak kokatu ahal izateko eta Internetera konektatutako edozein

ordenagailutik atzitu ahal izaten genituen lan fitxategiak biltegitratzeko. 8 urte genituenetik guztiok genuen gure "webpersonala", eta bertan gure zaletasunak aurkezteaz gain irakasleak on-line gainbegiratu ahal izaten zituen eskolako lan batzuk egiten genituen. Horrez gain, eskolako zerbitzariak "disko konpartituaren" espazioak ere eskaintzen zituen kurso bakoitzeko, irakasgai bakoitzerako, eta eratzen ziren lan-taldeetarako, horrelakorik eskatuz gero. Horrela, lankidetzazko lanak errazago garatu ahal izaten ziren.

Bestalde, "ikastetxeko web-a" ezinbesteko tresna bihurtu zen gure eguneroko lanerako eta aldi berean mundura irekitako atari bat da, ikastetxea eta bertan burututako jarduera guztiak biltzen zituena: bertako azpiegitura fisikoak, ikastetxearen hezkuntza proiektua (IHP), antolamenduaren egitura, irakasleak, ikasleak, irakasgaien programak, prestakuntza materialez eta orientazioez beteta zeuden irakasleen web orriak, asteko ordutegiak, jarduerak, ikasleen lan batzuk, eztabaida-foroak, gurasoentzako informazioak, gurasoekin izandako tutoretzak, tramite administratiboak eta abar". (Apuntes del futuro)

Proposamenaren esparrua

Nahiz eta batzuetan hezkuntzaren munduak beste sektore gehienek baino inobilismorako joera handiagoa duelako topikoa azpimarratzen dugun, irakaskuntzan (baita kudeaketan, materialak garatzen, ikerlanean...) eman ditudan 35 urteak gainbegiratzen ditudanean, hezkuntza maila guztietan, dagozkion eremu guztietan, aldaketa progresiboak eta sakonak (gizarteak eboluzionatu ahala) izan direla ziurtatu ahal izaten dut: materialetan eta azpiegiturretan, antolamendurako eta kudeaketarako formulatan, metodologia didaktikoetan, balio sisteman,

curriculumaren helburu eta edukietan, ikasleen profiletan... eta Erreformarekin, hezkuntza sistemaren egitura orokorrean ere aldaketa sakonak egin dira. Aldaketa horietara guztietara egokitzeko izugarritzko ahaleginak egin behar izan dituzte irakasleek, sarritan egoerajakin batzuei aurre egin behar izan dietelako, horretarako berariazko prestakuntzarik eta beharrezko gutxieneko baliabiderik izan gabe, gainera.

Oraingo egoerari buruzko ikuspegi simple baina errealistak agerian uzten du baldintza egokiak izanez gero (behar bezalako zuzendaritza, behar adina baliabide, ondo prestatuta eta motibatuta dauden irakasleak, planteamendu pedagogiko eguneratuak...) gauzak bide onetik doazela eta orokorrean prestakuntza ona eskaintzen dela; eta, aitzitik, zirkunstantzia horiek gabe, gauzak bide okerretik doaz. Bi muturren artean eskala bat ezar genezake eta ikastetxe guztiak kokatu. Neurri handiagoan edo txikiagoan, kalitatezko irakaskuntza emateko ezinbesteko faktore horietako batzuk ez izateak eragozten digu askotan ikastetxe batzuei beste batzuetan garatzen diren "praktika egokiak" eza-gutaraztea.

Hala, praktika egokiak hedatzeko ohiko zailtasunak alde batera utzita, eta sarrerako fikzioaren (?) ildotik, ondoren **jarduerarako proposamen bat** agertzen da, **ikastetxe guztietan aplikatu daitekeena**. Berrikuntzaren hazi antzeko bat da, eta **irakaskuntzaren metodologiak eta irakasteko eta ikasteko prozesuak nabarmen berritzea ahalbidetu, ikasleen eta irakasleen motibazioa areagotu, eta ikaskuntza esanguratsuak eta gaur egungo gizartearekin bat datozenak lortzeko bidea errazten du**. Argumentuak oraindik amaitzekotan dagoen azterlan batek eskainitako datuetan oinarritzen dira. Hauxe da azterlanaren izenburua, "**arbel elektronikoa hezkuntza testuinguruetan**" (MARQUÉS, 2002b), eta bertan atera-

tako behin-betiko ondorioak Kongresuan aurkeztu dira.

Proposamenak honela izenatu: arbel elektronikoa gela guztietan

Ikastetxeetara eta Hezkuntza Administrazioetara zuzendutako jardueraren proposamena hau da: ikastetxeetan inbertsio-plan bat ezartzea, pixkanaka gela GUZTIAK "arbel elektronikoz" hornitzen joateko aukera emango duena. Arbel elektronikoa sistema teknologiko bat da, Internetera konektatuta dagoen multimedia ordenagailu batez eta kanoi elektronikoz osatua, gelako ageriko leku batean arbel edo pantaila zuri baten gainean irudiak proiektatzeko.

Behingoz, aurrerago argumentatuko dudanez, **geletan besterik gabe baliabide teknologiko bat izateak**, irakasleentzako hasierako orientazio saio labur batekin batera, **irakasteko eta ikasteko prozesuak pixkanaka berritzera bultzatzen gaitu, irakasle GUZTIEN-GANA hedatzen den berrikuntza izanik**. Zalantzarik gabe, araua justifikatzen duen salbuespenetako bat da; jakin baitakigu teknologiak berez hezkuntzan ez duela inolako berrikuntzarik bermatzen orokorrean.

Sistema osoak 5.000 euro/gelako balio du gutxi gorabehera, baina irakasleen eta ikasleen jardueretan eta jardueretan aldaketa positiboak bultzatzeko eta katalizatzeke duen ahalmen handia, azterlanaren lehenengo emaitzek adierazitakoarena arabera¹ (MARQUÉS, 2002b), nahikoa da inbertsioa justifikatzeko. Hona hemen arbel elektronikoz integratzen diren osagai nagusiak:

- Multimedia ordenagailu bat, DVD, bozgorailu eta mikrofonoarekin.

- Ordenagailuaren konexioa Internetera, abiadura handikoa (ADSL, kablea).

¹Ikerlanak bi fase nagusi barne hartzen ditu:

1.- **Alde aurreko azterlana**: zer iritzi dute gela batzuetan sistema hau ezarrita duten ikastetxeetako irakasleek, ikasleek, gurasoek eta kudeatzaileek? Nola erabiltzen dute? Puntu ahulak eta sendoak identifikatzea.

2.- **Azterlan nagusia**: arbel elektronikoz hiru ikastetxetako gela guztietan ezartzea (**bide batez, babesle bila gabiltza proiektzio-kanoien fabrikatzailearen artean**) baita prestakuntza eta segimendu sistema egoki bat ere. Benetan inplikatzeko al dira irakasle GUZTIAK? Lortzen al da berrikuntza nabarmenik irakaskuntza metodoetan? Ikasleen ikaskuntzan antzemandako hobekuntzek justifikatzen al dute inbertsioa?



go-
eneko
gelak arbel
elektronikoez
hornitzeko hasitako

- Ordena-
gailuaren konexioa
telebistako antena batera.

- Proiektzio kanoi elektronikoa, ahal bada sabaian kokatua, eta urrutiko aginte batez pizten dena, "botoi gutxi-ekin" eta erabiltzen erraza (hain funtzionala ez den baina merkeagoa den alternatiba pantaila handiko bi monitoare edo telebista izango lirateke, estrategikoki kokatuak ikasleek ahalik eta ondoen ikus ditzaten).

- Mahai gaineko eskaner bat.

- Koloretako tinta-injekziozko inprimagailu bat.

- Webcam txiki bat, tarteka bideohitzaldiak egiteko aukera emango duena, baita argazkiak, objektuak edo sekuentzia txikiak zuzenean proiektatzeko edo digitalizatzeko ere (gardenki-proiektorearen eta opaskopioaren ordezkia izan daiteke).

- Magnetoskopio simple bat, bideoen eta telebistako programen grabazioen erabilera didaktikoa ahalbidetuko duena.

- Arbel zuri bat edo pantaila bat. Arbel zuria bada hobeto, proiektatzen ari diren irudien eta testuen gainean oharak idazteko aukera ematen duelako.

Alde handiarekin, sistemak duen osagairik garestiena proiektziozako kanoi elektronikoa da. Hala eta guztiz ere, bere prezioa nabarmen murriztuko litzatekeela uste dugu Hezkuntza Administrazioek fabrikatzaileekin akordioak ezarriko balituzte, geletako premietara propio egokitutako modelo bat diseinatzeke.

Gaur egun, ikastetxe batzuetan da-

prozesua geldoa denez, eta azpiegitura horiek erabiltzeko irakasleek egindako eskariak gero eta handiagoak direnez, kasu batzuetan sistemaren oinarriko elementuak ezartzea erabaki da (ordenagailua, proiektziozako kanoia eta abar), alboko geletara eramateko "armairu mugikoi" batzuetan sartuta. Hala ere, orain lantzen ari diren azterlanak eskaintako datuen arabera, hori ez da aukera egokia besteren artean arrazoi hauengatik: material batzuen hautortasuna (bereziki proiektziozako kanoia), kableak luzatu eta konektatzeak eta deskonektatu eta biltzeak sortzen dituen arazoak, Internetarako konexio arazoak..., irakasleentzat azpiegitura horiek atezainari eskatu behar izateak edo bila joan behar izateak adierazten duen deserosotasuna...

Beraz, geletan instalazio finkoak

egitea gomendatzen da eta, gela guztiak sistema horretaz hornituta egon artean, ikasleak mugiaraztea irakasleari arbela elektronikoa erabiltzea oso komenigarria dela iruditzen zaionean; horretarako, aldizkako plangintza eta koordinazioa besterik ez da behar, baliabide honen aurrean interesa erakutsi duten irakasleen artean. Espazio libreak dituzten ikastetxeetan, espazio horietako bat arbel elektronikoz batez horni dezakete baliabideen gela balitz bezala (librea eta guztien helmenean). Hori ezinezkoa bada, gela irakasle/kurtsu bati esleituko zaio sistema hori etengabe erabiltzea aurreikusten duenean, baina beste irakasle batek arbela erabiltzeko puntualki eskatzen badu hark gela uzteko konpromisoa hartuz gero, ordea.

Irakasleen prestakuntza eta aholkularitza etengabea

Ezarritako helburuak lortzeko kon-tuan hartu behar den funtsezko alderdi bat, sistemak eskaintzen dituen aukerak aprobeztatu ahal izateko irakatsi eta ikasteko prozesuak berritu eta hobetzeko tresna gisa, irakasleen prestakuntza egokia eta beren jardunaren hasierako segimendua dira.

Arbel elektronikoa erabiltzeko behar diren ezagutzak gutxienekoak izan arren, azpiegitura horiek ikastetxeetan ezartzen hasteko garaian komeni da





Ezarritako helburuak lortzeko kontuan hartu behar den funtsezko alderdi bat irakasleen prestakuntza egokia eta beren jardunaren hasierako segimendua dira

irakasle guztiei prestakuntzarako saio bat eskaintzea; saio horretan, sistemak eskaintzen dituen aukerak aipatuko dira (dokumentu hau baliagarria izan daiteke sarrera gisa) eta **web orri batzuen zerrenda biltzen duten liburu** xkak banatuko dira, baita irakasgai bakoitzerako beste multimedia baliabide batzuk ere. Baliabideen zerrenda hori web orri batean ere barne hartuko da, bertatik irakasleek lotura edo esteka guztiak zuzenean atzitu ahal izateko eta, nahi izanez gero, osatu egin dezakete aurkitzen dituzten beste web orri batzuen helbideekin. Jakina, horren guztiaren erakustaldi praktikoa bat egingo da gela batean, arbel elektronikoa bat jarritz.

Prestakuntza eta segimendurako bilerak/mintegi batzuk egiten badira, bereziki lehenengo urtean, errazagoa izango da irakasleentzat irakaskuntzaren eszenatoki berri horretara egokitzea eta Interneten aurkitu diren eta hezkuntzaren ikuspegitik balio handia duten edukia elkarrekin banatzea, eta horrela sistemak eskaintzen dituen aukerei etekin handiagoa aterako zaie, aldaketa metodologikoa berekin ekarritz.

Hezkuntzaren eremuan eskaintzen dituen aukera batzuk

Arbel elektronikoa gelan ikusteak bakarrik lanerako modu berriak sorrazten ditu, ikasleak ikastetxean bertan edo etxean Internetarako sarbidea izanez gero sendotzen joango direnak.

Gaur egun, familia espainolen ia %30k du Internetarako konexioa etxean, eta ehuneko hori etengabe hazten ari da, gainera.

Ikastetxean Intranet izateak, irakasleek eta ikasleek karpeta pertsonalizatu bat eduki ahal izateko eta bertan beren apunteak eta lanak biltegitratzeko (Word, Power Point...), **areagotu egiten ditu arbel elektronikoen aukerak**, edozein unetan material horiek gelan aurkeztu edo erabilia ahal izango direlako (irudi asko edo bideoak biltzen dituztelako "handiak" izan arren), Internetera konektatu behar izanik gabe.

Irakasleak, bereziki hasiera batean orientazioa eta dagokien irakasgairako web orri interesgarrien gida jaso badute, azkar hasiko dira sistema ezagutzen eta didaktikoki erabiltzen. Irakasleak oso pozik eta parte hartzeko gogoarekin agertuko dira hasieratik. Izan ere, **eskola, ikaskuntzak eta ezagutzen eraikuntza** (azkenean) **guztien partaidetzarekin egingo dira**. Orain hori guztia errazagoa da guztiarentzat.

Informazioaren eta teknologia berrien (batik bat Internet) gizarte honek "irakaskuntzaren paradigma" berri baterantz garamatzala ikusita (ikus, adibidez, <http://dewey.uab.es/pmarques/nparadig.htm>), arbel elektronikoa bere tresna nagusietako bat da.

Gelan arbel elektronikoa erabili eta aprobetxatzeko aukera didaktikoak anitzak izan arren, **oinarrizko lau erabilera** identifika ditzakegu:

- **Irakasleen erabilera:** irakasleek ikasleei emandako azalpenak eskaintzen dituzten web orrien proiektioetan oinarritu ditzakete: irudiak, eskeimak, bideoak, ikuspuntuak, prentsa digitaleko albisteak, erakunde eta enpresen aurkezpenak... Eta, jakina, bideoak, CD euskarrian dauden materialak edota telebistako programak ere proiektatu ditzakete.

- **Ikasleen erabilera:** ikasleek, gelan landuko diren hurrengo gaietara buruz irakasleak emandako informazioa jaso ondoren, beren kasa bilatu ahal izango dituzte web orriak eta gaiekin zerikusia duten bestelako baliabideak, eta ikaskideei aurkeztu ahal izango dizkiete, irakasleak horrelakorik eskatzen duenean.

Horren bidez, Interneten informazioa bilatzeaz gain eta informazio hori guztia irakurri, ulertu eta baloratzeaz gain, ikasleek web orri horien edukia eta lantzen ari diren gairako duen interesa ikaskideei azaltzeko aukera izango dute. Irakaslearen zeregina entzutea izango da, edo hala badagokio ikaslearen azalpenak zuzentzea edo osatzea.

- **Irakasleek eta ikasleek batera egindako erabilera:** adibidez, alde zuzenetik prestatu den eztabaida baten testu-

guruan, horretarako irakasleek eta ikasleek Interneten datuak bilatu dituztelarik, beren argumentuak justifikatzeko.

- **Ordenagailuaren txokoa:** sistema informatikoa (ordenagailua, inprimagailua, eskanerra eta abar), gelako leku zehatz batean kokatua, informazio iturri gisa eta komunikatzeko bide gisa erabili ahal izango dute ikasleek eta irakasleek behar duten guztietan. Kasu batzuetan dokumenturen bat lantzeko ere erabili ahal izango da, baita irudiak digitalizatzeko, inprimatzeko eta abar ere. Kasu jakin batzuetan ikasle-taldeek programa didaktikoekin lan egiteko erabili ahal izango dute.

Eskura duten informazioa irakasleek disko gogorrean jarri dutena izango da, baita gelako liburutegiko CDak (beharrezkoa izanez gero ikastetxeko liburutegian ere maileguan eska daitezke) eta, noski, Internetarako sarbidea ere.

Hortik aurrera **aukerak amaigabeak dira, eta guztiak erakargarriak bai irakasleentzat bai ikasleentzat**. Adibidez, lehen hezkuntzako etapan eta DBHko irakasgai batzuetan, **prentsa elektronikoak** eskaintzen dizkigun albisteak gainbegiratzuz has dezakegu egunero eskola, eta ondoren ikasleekin batera

gertatzen dena iruzkindu, galderei erantzun, beste egunkari batzuk zer dioten ikusi, Interneten informazioa zabaldu, gatazken sorburuak bilatu, eztabaidatu, erreferentziatzeko balio sistemari buruz iritzia eman... Ez al da balio handikoa hezkuntzaren ikuspegitik? Ez al da motibagarria ikasleentzat, gaiak ondo aukeratuz gero edo haiei aukeratzen utziz gero? Ez al dugu jarduerarekin gozatzeko, kontuan izanik gertatzen denari buruz "eguneko egoteko" aukera emango digula gainera?

Baina oraindik ere gehiago aprobe txatu dezakegu gero eta hedatuagoa den teknologia hau. Albisteak egunero aurkeztuko dituzten ikasleekin egunero talde desberdin bat eratzea erabaki dezakegu, Interneten agertzen diren goizeko albistegietan eta prentsako titularretan oinarrituta. Orain, gure zeregina gainbegiratzea, eztabaida bultzatzea, orientatzea... izango da, eta azkenean gure ustez nabarmentzea kome ni den albisteen gainbegiraketa lana osatzea. Zein urruti geratu den ikasleak betiko gai berei buruz betiko eskola magistralen hartzaila pasibo hutsa zireneko garai hura!

Beste adibide bat, orain **aniztasunaren tratamenduari** buruz. Gogora ekar

dezagun irakasle guztiek web orrienganda antzeko liburutxak bat jaso dutela dagokien irakasgaia emateko. Informazio horrekin, eta irakasle bakoitza nabigazio orduak metatu ahala ezagutzen joango den baliabideekin, gaiak arbel elektronikoa erabiliz aurkeztean gaurkotasanari buruzko adibide eta erreferentzia ugari erabili ditzake. Multimedia baliabide horien aniztasunak, ikasleen motibazioa piztu eta arreta mantentzeaz gain, guztien interesekin bat etortzeko aukera emango digu.

Gainera, informazioa eta autozuzenketa ariketak eskaintzen dituzten web orriak erakutsi ahal izango ditugu, ikasle jakin batzuei kontsultatzea iradokiz, eduki batzuk zabaldu edo erreparatu ditzaten. Helmenean ditugun baliabideen ugaritasunak erraztu egiten du (azkenean!) aniztasunaren tratamendua eta ikasleen ikaskuntzak ezagutzaren eraikuntza pertsonalerantz hobeto bideratzeko aukera ematen digu.

Arrakastaren arrazoiak: arbel elektronikoa magia

Arbel elektronikoa magia irakasle guztiek oso gogoko dutelako sortzen da. Pixkanaka, eskaintzen dituen aukera ugariak ezagutzen hasten dira eta aldi berean irakaskuntzarako metodologia berriak probatzen; horregatik, **neurri handiagoan edo txikiagoan, BETI berri-tzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuak**. Hona hemen arrakasta horren arrazoiak:

- Arbel elektronikoa oso erraza da erabiltzen. **Berehala ikasten da hasteko beharrezkoa den guztia**. Gaur egun nork ez daki nabigatzen? Gaur egun nork ez du nabigatzen ikasi nahi? Nork ez du ordubete baino denbora gutxiagoan nabigatzen ikasten?

- **Berehala hel gaitzke informaziora**. Ez da beharrezkoa materialak prestatzen denbora gehiegirik ematea. Nahikoa da material horiek Interneten daudelarik. Eta eskolaren aurretik kontsultatzen badira, gustukoa eta aberasgarria izan ohi da material horiek gainbegiratzea.



Zenbait kasutan, irakasleek ahalegin osagarri handiak egin beharko dituzte, baina orokorrean arbel elektronikoa erabiltzen ez dute denbora gehiago eman beharko beren lanean

- **Teknologia garbia da eta ez du arazorik sorrarazten.** Beharrezkoa izanez gero teknologia hori gabe ere lan egin dezakegu, hau da, behin edo behin sistema ez badabil edo Internetek arazoak ematen baditu. Eskola arbel elektronikorik gabe ere eman daiteke besterik gabe, lehen egiten zen bezala.

Hain sinplea eta segurua den sistema teknologikoa horren aurrean, informatikako gelara joatea askoz ere konplikatuagoa eta estresagarriagoa da informatikako ezagutza handirik ez duten irakasleentzat. Ugariak izan daitezke saioan zehar gerta daitezkeen gorabeherak: ondo funtzionatzen ez duten ordenagailuak, birusak, bat-batean ez dabiltzan programak, konfigurazio arazoak, askatzen den kablaren bat, "informatikaz asko dakien" ikasleren baten bromak eta abar.

- **Ikasleen arreta eta motibazioa handiagoak dira** eta interes handiagoa erakusten dute irakasgaiaren aurrean. Eskolan diziplina eta lan giroa mantentzea zaila gertatzen den inguruneetan ere gatazka gutxiago sortzen da. Irakasleak erosoago sentitzen dira telebistaren ikus-entzunezko munduaren aurrean daudenean, beren bideo-jokoekin kontzentratuta edo Internetetik era ludiko batean nabigatzen. Eskolan lan-

tzen diren gaiak gehiago hurbiltzen dira aurretik izan dituzten esperientziatarra. Errazagoa zaie berria dena lehendik dakitenarekin lotzen. **Ikaskuntza esanguratsuagoak egin ditzakete.**

- **Ikasleek zeregin aktiboagoa dute** eskolako jardueretan. Askoz ere gehiago parte hartzen dute, autonomia gehiago dute, baita aukera gehiago ere gaur egungo gizartearen hain garrantzitsuak diren **gaitasunak garatzeko**, adibidez: informazioa bilatu, baloratu eta aukeratzeko, lankidetzazko lanak egitea, beren argumentuak argi eta garbi aurkeztea eta abar.

- **Irakasleen autoestimazio profesionala handitu egiten da:** eraginkortasunez erabiltzen dituzte teknologia aurreratuak, hobetu egin dute irakaskuntza lana, hobeto prestatzen dituzte ikasleak... Denborak aurrera egin ahala, **aukera metodologiko berriak ezagutzen dituzte** baita aplikatu daitezkeen baliabide berriak bezain ugariak ere (batez ere Interneten).

- **Etengabe ikasten dituzte gauza berriak**, web orriak bisitatuz eta eskolan iruzkinduz. Gogoko dituzte eta dibertigarria iruditzen zaie. Dagoeneko amaitu da monotonia ikasleentzat baita irakasle batzuentzat ere.

Arbelel elektronikoak berritzeko, ikasleak motibatuzko, ikaskuntza esanguratsuagoak sustatzeko, ikasleen aniztasunari erantzun ahalizateko... eskaintzen dituen aukerak amaigabeak dira. Zenbait kasutan, irakasleek ahalegin osagarri handiak egin beharko dituzte (gardenkiak egitea, apunteak, material didaktiko interaktiboak), baina orokorrean arbel elektronikoa erabiltzen ez dute denbora gehiago eman beharko beren lanean. Sagua ukitutuz besterik gabe, Interneteko liburutegi unibertsala eskura izango baitugu eskolan. **Ez al zaizue errealitate bihurtutako ametsa iruditzen?**

"...*Eta irakasleek Internet integratu zuten beren irakaskuntza lanean, eskolan horretarako azpiegitura egokiak eskuera zituztelako, Interneten edukia eta aukerak ezagutzen zituztelako (etxean ere erabiltzen zuten komuni-*

katzeko eta informazio desberdina eta beren irakasgaiari buruzkoa bilatzeko) eta hori egin beharra zegoela uste zutelako... denboren dinamika". (Apuntes del futuro) •

BIBLIOGRAFIA

- AREA, Manuel: *Educación en la sociedad de la información*, Declée de Brouwer, Bilbo, 2001.

- CABERO, Julio (argitaratzailea): *Nuevas tecnologías aplicadas a la educación*, Síntesis, Barcelona, 2000.

- DE PABLOS, Juan: "Nuevas tecnologías, educación y entretenimiento" *in* *Comunicación y Pedagogía*, 172 (2001), 25-31.

- FERRÉS, Joan; MARQUÉS, Pere (Koord.): *Comunicación Educativa y Nuevas Tecnologías*, Praxis, Barcelona, (1996-..).

- GALLEGO, D.; ALONSO, C.: *El ordenador como recurso didáctico*, UNED, Madrid, 1999.

- MAJÓ, Joan; MARQUÉS, Pere: *La revolución educativa en la era Internet*, CissPraxis, Barcelona, 2000.

- MARQUÉS GRAELLS, Pere: "Usos educativos de Internet: ¿la revolución de la enseñanza?" *in* *Comunicación y Pedagogía*, 154 (1998), 37-44.

- MARQUÉS GRAELLS, Pere: Hezkuntzako teknologiari buruzko web orria: <http://dewey.uab.es/pmarques> kontsulta (2002/4/15), (2002a).

- MARQUÉS GRAELLS, Pere: "La pizarra electrónica en los contextos educativos" (oraindik egiten ari diren ikerlana), <http://dewey.uab.es/pmarques/pizarra.htm> kontsulta (2002/4/15), (2002b).

- REPARAZ, Charo; SOBRINO, Ángel; MIR, José Ignacio: *Integración curricular de las NNNT*, Ariel, Barcelona, 2000.

- SANCHO GIL, Joana M^a: "Educación en la era de la información" *in* *Cuadernos de Pedagogía*, 253 (1996), Barcelona.

- SANCHO, Joana M^a et al.: *Apo-yos digitales para repensar la educación especial*, Octaedro, Barcelona, 2001.

Desertuaren erdiko Lanbide Eskola baten ibilbidea

Gazuaniko (Mendebaldeko Sahara) Lanbide Eskola



Jose Luis FERNANDEZ
MAURE

Elgoibarko EHko zuzendaria

Aljeriar haradako bizi baldintzak oso gogorrak dira. Saharako lurralde askatuetatik oso gertu gelditzen den zonalde honetan, oso landare eta animalia gutxiak lortu dute bertako temperaturara eta ur eskasiara egokitzea.

Hegazkina Tindouf-era hurbildu ahala, desertuko hondar eta harrien artean pezozko eraikuntza txikiak eta haimak ikusten hasi ginen. Hantxe garatzen da herri sahararraren bizimoduak: ikastetxeak, osasun zentroak, ministeritzak... Herri antolatua da, eta bertakoek badakite egunen batean

bere lurraldera itzuli eta bizilagunekin etorkizuna bakean eraikiko dutela.

Sidhamdat Mohamed Lamin Sulllem, lagunentzat, alegia denentzat, Sidi, Gazuniako Lanbide Eskolako zuzendaria da. Eskola horrek argi eta garbi erakusten digu nola jakin duten gobernu marokoarrak eragindako erbestera egokitzen alderdi guztietan.

Sidi, kontaiguzu nolakoa izan zen Gazuniako Lanbide Eskolaren hastapena. Noiz ireki zituen atak eta zein bitartekorekin?

Beharrak bultzata hasitako proiektua da, ez da inoren gutizia izan. Automozioaren adarrean profesionalak prestatzeko beharra geneukan eta horregatik sortu zen ideia 1993-94an. Euskal Herriko ordezkari bat etorri zen hona eta haren laguntzarekin zonalde honetan Lanbide Eskola irekitzea erabaki zen, ingurunekeko produktio zentroetatik hurbil baitago leku hau. 1994an diseinatu zen eta 1997 hasieran bukatu zen. Lehenengo promozioa 1997-98 ikasturtean atera zen 75 ikasleekin eta geroztik eboluzioa ondokoa izan da: 1998-99an 83 ikasle, 1999-2000an 75, eta 2000-01ean eta 2001-02an 64. Materialen eskasia dela eta lehen ikasturtean prestakuntza teorikoa soilik jaso zuten eta praktikoa bigarren ikasturtean jaso dute.

Gainera, iaz informatika ikasketekin ere hasi ginen 15 ikasleekin.

kin ere hasi ginen 15 ikasleekin.

Gazuaniko Lanbide Eskolan 14 irakasle egiten dute lan.

Ikasketak amaitu ostean, zein irteera dituzte ikasleek?

Gehienak, %80 inguru, euren jaioterrira itzultzen dira, euren Wylalletara, eta zentro publikoetan egiten dute lan. Gainontzeko %20a bere kabuz hasten da lanean eta auto pribatuaren parkeko beharrei erantzuten die.

Ikasleak ilusioz ikusten al dituzue? Nolakoa da mekaniko nagusiekin duten harremana?

Praktikak egiten hasten direnean motibatuago ikusten ditugu eta ardura gehiagorekin aritzen dira. Nagusiekiko erlazioari dagokionez, munduko edozein lekutan gertatzen den gauza bera pasatzen dela uste dute; nagusiek praktika asko dute, baina teoria falta zaie, eta are gehiago gaur egun teknologiak daraman abiadura ikusita. Gazteei, aldiz, alderantzizkoa gertatzen zaie; teoria asko dute, baina praktika falta zaie. Hasieran bien arteko talka bategon ohia da, baina aurrera egin ahala konturatzen dira esperientzia eta teoria trukatzea onuragarria dela eta osagarriak direla. Errealitate hori ulertzen ez duenak, izan nagusia edo gaztea, bere lanbidean porrot egiteko arriskua dauka.



Ikusten al duzue gazteentzat interesgarria, eta aldi berean Saharako errepublikaren garapenerako garrantzitsua izan litekeen adar berririk?

Badago garrantzitsua den arlo bat: energia garbiak deiturikoa, hots, eguzki energia eta energia eolikoa.

Egungo egoeran ustia daitezkeen bitarteko asko dauzkagula uste dugu, eta gainera, etorkizuneko Saharako Errepublika askerako esperientzia bezala balioko digute. Horrez gain, ez dute ekipamendu askorik eskatzen eta erakargarriak dira gure gazteentzat.

Aholkularitza beharko dugu instalazioan, ekipamenduan eta material didaktikoan. Euskal Herrian arlo horretan diharduten Lanbide Eskolen laguntza oso ongi hartua izango da, noski.

**Sarritan joaten zara Euskal Herri-
ra. Zer egiten duzu bisita horietan?**

1995ean joan nintzen lehenengo aldiz eta oso lagun onak ditut orduz geroztik. Gure zentroari, eta niri bereziki, izugarri lagundu digute. Elgoibarko BHIan kudeaketa ikastaro bat jaso nuen. Lagun ugari ditut Elgoibarko BHIan, hainbat instituzio publikotan, enpresetan, eta noski, Gasteizko Lagunen Elkartean, zeina urteetako lankide-

tza jarraiaren adibide den.

Horixe da falta zaiguna, hain zuzen ere. Lanbide Heziketan ikusi ditudan esperientziek gure eskolako ekipamenduan eta funtzionamenduan pautak zehazteko balio izan didate. Beti laguntzeko prest zeuden irakasleak topatu ditut. Memento honetan Ikaslani eta Eusko Jaurlaritzari esker Lanbide Eskolekin lan egin dezakegu. Eta kolaborazio horrek jarraipena izango duela bermatu behar dugu.

Ez dugu ahaztu behar desertuaren erdian gaudela eta ezinezkoa zaigula lotura iraunkorrik gabe funtzionatzea. Profesionalen arteko trukea, birziklaia eta behar dugun material suntsigarria oinarritzko elementuak dira gure zentroaren etorkizunerako.

Bide batez, garrantzitsua iruditzen zaigu SAEDren (Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa) egoera politikoa eta etorkizuna aipatzea.

Guk, iraultza hasi zenetik, hasiera-hasieratik, oinarritzkoa eta eztabaida ezina den premisa bat geureganatu genuen: herri honen etorkizuna geure lurraldean, Saharan, independentzia lortzean datzala.

Goizedo berandu, dagoena dagoe-

**Beharrak bultzata hasitako proiektua da, ez da inoren gutizia izan. Auto-
mozioaren adarrean profesionalak prestatzeko beharra genukan eta horregatik sortu zen gure Lanbide Eskola 1993-94an**

Ez dugu ahaztu behar desertuaren erdian gaudela eta ezinezkoa zaigula lotura iraunkorrik gabe funtzionatzea. Profesionalen arteko trukea, birziklaia eta behar dugun material suntsigarria oinarrizko elementuak dira gure zentroaren etorkizunerako. Aholkularitza beharko dugu instalazioan, ekipamenduan eta material didaktikoan. Euskal Herrian arlo horretan diharduten Lanbide Eskolen laguntza oso ongi hartua izango da, noski.

la, etortzen dena etortzen dela, egiten duena egiten duela, herri sahararra independentea izango da. Hala izango den uste osoa dugu, saharar guztiok odolean daramagun ustea da. Txikitzeko edo birrintzeko makina batean sartzen baldin bagaituzte ere, ura eta olio bezala geldituko gara, banandu ezinak gara.

Denek ulertzen dute. Marraketxen eta mundu osoan bizi direnek dakite Saharako Errepublikak dagokion lu-



rraldea okupatuko duela eta bere gobernuak beste edozein gobernuak di-tuen eskubideekin eta betebeharrekin funtzionatuko duela.

Inork ez dezala beste ezer pentsatu eta bere burua engainatu. Independentzia da bide bakarra. Eskubideak ez dira ez eskatu ez ematen, eskubideak eduki egiten dira, eta herri sahararrak etorkizuna erabakitzen duen moduan eta lekuan antolatzeko eskubidea dauka.

Badakigu Euskal Herrian asko garelara Timoren ondoren mende honetan independentzia lortuko duen bigarren herrialdea SAED izatea nahi dugunak.. Nola lagun diezazuekegu amets hori egi bihurtzen?

Euskal Herriatik mota guztietako laguntza jaso dugu: politikoa, morala, ekonomikoa... Beti egon zarete herri sahararraren ondoan. Funtsezkoa da laguntza horrek jarraitzea eta gizarte osoa inplikatzeko.

Bisitatu gaituzuenok zuen esperientzia transmititu behar duzue eta euskal gizarteari esan behar diozue herri sahararra bere etorkizuna inolako esku sartzetik gabe erabakitzeko eskubidearen alde borrokan ari dela. Munduko herri guztiei dagokien eskubide horri autodeterminazio eskubidea deritzo. Esaiezue gure herriak izan nahi duena izango garelara, gure herriak erabakitzen duena.

Hegazkinera igotzen ondoren berriro pezozko etxeak eta haimak ikusi nituen, baina beste begi batzuekin. Orain badakit herri horrek independentea izateko hartu duen erabakiak ez duela atzera bueltarik. Inoiz ere kanporatuak izan behar ez zuten herrialdeko kaleetan sartzen direnean, euren ondoan egotea espero dut.

Eskerririk asko zuen abegitasunagatik Sidhmdat, Nino, Lamin, Dahman, Hmdeiti, Mustafá, Omar, Nafa eta eskuzabalik hartu gaituzuen guztioi. •

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



IPURBELTZ
1977 – 2002

Berriak urtarrila



UEUK lehenengo kongresuko definizioari eutsi dio

Udako Euskal Unibertsitateak bere bigarren kongresua burutu zuen joan den abenduaren 14an Bilbon. Egungo egoeraren azterketa egin eta etorkizuneari egin beharreko berritze eta egokitzapena izan zen eztabaidalan han bildu ziren ueukideentzat. UEU 1973an sortu zen eta orduz gero badu 30 urteko historia luzea bere gainean euskal unibertsitatea bultzatuz, horixe izan baita hasiera-hasieratik xedea. Horretarako, udako eta beste hainbat motatako ikastaroak antolatu izan ditu, aldizkariak eta liburuak argitaratu ditu, eta beste hainbat jarduera bideratu, hala nola irakasleriaren prestakuntzarako edo normalkuntzarako planak.

1995ean egin zuen bere lehenengo kongresua, eta ordutik hona unibertsitateak eta bere inguruak aldaketa nabarmenak izan ditu urteotan. Hor ditugu legediarenak, hor Europako Batasunaren eraketa, teknologia berrien ezarpena... Euskal Herriko gizarteak berak izan dituen eraldaketa sakonak ere bete-betean eragiten dute UEUren helburua gauzatzeko. Horretaz guztiaz eta aurrerantzean eman beharreko urratsez hausnarketa egitera bildu ziren Euskalduna jauregira 150 ueukide-

ak. Aurrez gai zerreda luzea proposatzen zen eztabaidarako: Euskal Unibertsitatearen kontzeptua birdefinitzea, egungo testuinguruan UEUren egitekoa zehaztea, euskarazko formazio eskaintza aukera zabaltzea, bertako eta diasporako komunitate zientifiko-intelektualaren bilgunea indartzea, titulazio mapa bat garatzea, elkarlan esparruak garatzea, euskal campusak sustatzea, ezagutzaren ataria sortzea, campus birtuala garatzea, UEUren eredu pedagogikoa eraikitzea, lurralde guztietako hezkuntza eraikinen sarea osatzea, Iparraldean egitura propioa egituratzea...

Balitzko unibertsitatea beti xede izanik Iñaki Markok, kongresuko artzakarriak, zuzendu zuen “Geroa orain” txosten orokorarekin hasi zen eztabaida. Txosten horrek hiru zati zituen: lehenbizikoan Euskal Herriko unibertsitatearen egoera aztertzen da; bigarrenan UEUren azterketa egiten da eta datozen urteetarako plan estrategikoa proposatu; eta hirugarrenean UEUren barruko antolaketa sendotzeko eman beharreko pausoak zehazten dira. Hasi, bada, txostenaren lehenengo zatiarekin hasi ziren, hau da, Unibertsitatearen testuinguruaren analisiarekin. Bigarren zatiarekin egin zuten segipena eta gai nagusienari heldu zioten, hots, Euskal Unibertsitatearen definizioari. “Geroa orain” txostenean Euskal Unibertsitate Sistema kontzeptua proposatzen zen,

euskal unibertsitatea sare gisa hartzeko proposamena eginez. Ez litzateke, lehen kongresuan onartu zen bezala, unibertsitate egoitza bat beharko, bai zik eta edozein unibertsitatean euskaraz egindako jarduera euskal unibertsitatearen zati izango litzateke, Euskal Herriaren garapen premiei erantzuneko dien euskaraz egituratutako sistema unibertsitarioa, lerro edo modulu anitzez osatutako sare gisa eratuko litzatekeena, hots, Euskal Unibertsitate Sistema deituko litzaikeena. Euskal unibertsitatea ulertzeko modu berri honek lehenengo kongresuan onartutakoa ekarri zuen eztabaidara. Orduko definizioak Euskal unibertsitateak hiru ezaugarri behar zituela esaten zen ezinbestean: euskalduna, nazionala eta herritarra. Horren ildotik egin zitzaizkion zuzenketa batzuk “Geroa orain” txostenari, esanez gaur egun Euskal Herriak ez duela egitura unibertsitario propioa, eta beraz, ezin izan Euskal Unibertsitate ere. Beste batzuen iritziz, unibertsitate batek bere jarduera soilik euskaraz lantzeagatik euskal unibertsitateatzat hartzea ez litzateke zuzena izango, hemengo kultura eta identitatearen ezaugarriak ere izan beharko litzukeelako, alegia.

Horren inguruan ibili zen eztabaida aberatsa eta nagusia. Lehendik ere aztertzeko aukera izan zuten ueukideek, kongresu aurretik erabili izan den metodologiaz denek izan baitute aukera

testuak ezagutzeko eta emendakinak bidaltzeko, bilera, posta-zerrenda eta mezuen bidez. Beste proposamen batzuk ere azaldu ziren, hala nola, izena moldatzearena "udako" hitza kenduz, azken urteotan negu partean egindako jarduerak udakoak baino pisu handiagoa hartu dutela argudiatuz.

Egun osoko jardunaren ostean erabaki hauexek hartu ziren: definizioaren inguruan, bi proposamenekin bat egiteko saiakera batzuen ondoren, UEUK lehen kongresuan onartutako definizioa berretsi zuen, hots, euskalduna, euskara edukiko du lan eta komunikazio tresna nagusia; Euskal Herria bere osotasunean hartuko duena; eta izaera herritarra izango duen unibertsitatea, hots, izaera propioa eduki-

ko duen Euskal Unibertsitatea ahalik eta lasterren gauzatu nahi da. Honen arabera, euskal unibertsitatea egongo da euskaraz funtzionatuko duen unibertsitate etxea dagoenean. UEUK euskal unibertsitatea sortzeko zeregina izango du eta egitasmo horrekin bat datozenekin elkarlana bilatuko du euskal komunitate zientifikoaren bilgunea egituratuz, unibertsitate mailako eza-gutzaren sorkuntza eta zabalkundea euskaraz ahalbidetuz eta goi mailako prestakuntza iraunkorra eskainiz. Horretarako eta urrats praktikoak diseinatzeko talde bat osatu zen. Gainera, euskal unibertsitatea sortzeko bidean talde eragile baten premia azaldu zen, UEUK berak sustatua izango bada ere, horren bidean eragile izan daitez-

keen estamentu sozialen, politikoen, sindikalen, kulturalen zein herritarren iritzia kontuan hartuko dituen taldea izan beharko luke. Helburu estrategikoaren inguruko beste erabakia batzuk ere hartu ziren, hala nola, liburugintza-aren alorra sendotzea; Euskal Herriaren premiei erantzungo dien titulazio mapa egitea antzematen diren indargunen eta hutsunen arabera eskaintza egiteko; horien homologazioa zuzenean lortu ahal izateko UEUren egitura juridikoa aldatzea; eta lehengo izenarekin jarraitzea, besteak beste. Hirugarren zatiko puntuak, erakundearen barruko antolaketaren ingurukoak, aztertze betarik ez zuten izan, eta datorren maiatz aldera helduko diete gai horiei.

Adarra Pedagogi Erakundeak Luis Otaño omendu du

Joan zen azaroaren 28tik 30era "Egungo hezkuntzaren erronkak" izeneko jardunaldiak antolatu ziren Bilbon. Jardunaldi horiek Adarra Pedagogi Erakundearen eskutik etorri ziren eta bertan egungo hezkuntzari azterketa egitearen aitzikiarekin omenaldia egin zitzaion Luis Otañori, Adarra pedagogia erakundearen sortzailetariko bat izandakoari.

Hezkuntza komunitateko 200 partaide elkartu ziren han eta egun denon ahotan dabilzan gaiei heldu zieten gogoeta egiteko asmoz: nola hezi eza-gupenaren gizarterako?; nola hezi ikasleria etorkina?; nola bultzatu gizar-tearen esku-hartzea eskoletako dinamikan?; desberdintasunak berdindu behar lituzkeen eskolaren eraikuntza; irakasleriak oraingo eskoletan duen papera; gizar-tearekiko eta berrikuntza pedagogikoarekiko konpromisoa...

Erronka berrientzako tokia ere izan zen: inongo haur edo gazte alboratuko ez duen eta eza-gupenaren gizar-teko eskola benetan izan dadin aldatzeko duen premia; aldaketa horretan utopiak berrartu beharko lukeen bide irekitzailearen papera; eragile eta

kultura guztien laguntzaz giza eskaerak behar bezalako irekitasunaz hartzeko beharra; irakasleen prestakuntzaren inguruan formazio kritikoa, taldelana eta berrikuntza pedagogikoa lehentasuntzat hartuko lituzkeen prestakuntzaren beharra...

Horiek guztiak beraz, bete-betean izan zuten omenduarekin zerikusia. Luis Otaño bere bizitza profesional osoan ibili da hezkuntza munduan. Iruñean jaio eta maisu urte askotan, hezkuntza hobekuntzak eskatzen ziztuzten artean ibili izan da, baita Adarrako presidente izan zenean ere. Beranduxeago Irakasleriaren Laguntza Zerbitzuaz arduratu zen eta Errekalde-

ko PATen zuzendari izan zen. Azken urteotan, berriz, Erkidegoko Irakasleriaren Prestakuntzarako eta Garapen Kurrikularrerako Erakundearen jardun du lanean eta talaia hortatik egungo hezkuntza sistemak jasan dituen aldaketan ikusmira ezin hobea izan du. Bere gogoeta eta proposamenak azaltzeko aukera izan du Erkidegoko Eskola Kontseiluan partaide izan den garaian. Bizitza eta pentsaera horien lekuko dira berak idatzi dituen artikulak, dokumentuak, liburuak eta ikastaro eta jardunaldiak.

Orain, kanpoxeagotik bada ere, ekarpenak egiten jarraituko du Luis Otañok.



Argitalpenak



Hiztegi jolastia
Joxan Ormazabal
Elena Odriozola
ELKAR

Hiztegiaren hizkiez baliaturik poema sorta polita jartzen digute eskura egileek, eta sarrerakoak, Josu Txapartegirena berau. Honela dio sarre-
ra horrek: a, be, ze, de, e, efe, ge, ha-
txe, i, jota, ka, ele, eme, ene, eñe, o,
pe, ku, erre, ese, te, u, uve, uve bikoitza,
ixa, i grekoa, zeta. Hauxe da, hau-
xe da, hizkien baleta, gure alfabetoa
musikaz betea •



**Léonardo
jakintsu handia**
JEAN FRANÇOIS SAURÉ

Sauré argitaratzaileak Léonard, un génie!aren euskarazko moldake-tadakarkigu oraingoan. Turk & de Groot-ek eginiko komikian ikusiko dugu nola Leonardo maisuaren asmakizunek, de Vinciko haren antze-
ra, bera eta bere dizipulua egoera xe-
lebretara eramango dituztela. Batean ipuin ezagunak hankaz gora jarriko ditu, bestean makina txanpon-jalea eta behi eroa... •



Yako eta haizea
Ixiar Rozas
EREIN


Goiz elurtu batean Yakok kartoizko kutxa bat aurkitu zuen logelako atearen ondoan. Kutxaren barruan beste bi kutxa zeuden bakoitzak izen bat zuelarik: Yako eta Zana. Ireki, eta Yakorenean egurrezko zapata batzuk eta paper batean:...Zanarenean txirula bat eta paper batean:...

Nondik irten ziren, ordea, opari haiek? 12 urtetik gorako neska-mutilentzat •



Olentzero
Gabonetako ipuina
IBAIZABAL

Askok ezagutzen dugu Olentzero-ren ipuina, baina oso gutxi entzun dituzte Olentzero berak kontatutako naturaren zaintzari edo beharizanean daudenei buruzko istorioak. Balezko ekoiztu duen Olentzero pelikularen gidioan oinarrituz, Seve Callejak moldatu du liburu hau, hamabi kapitulu-
lutan banaturik eta koloretako irudi ederrez horniturik •



Imanol Urbietaren luzea da bidea
Andoni Egaña
IBAIZABAL

Manolito, Manolo, Imanol edo Imanolo Urbietaren "Txiki, txiki, txikia", "Ranroberran", Erreal futbol taldearen ereserkia, "Hilda aurkitu dut koplarria" entzun edo abestu ez duen norbait ba ote da Euskal Herrian? Euskalzetasuna bider herrikoitasuna bider musikatasuna, berdin Imanol Urbietaren bizitza, bertsolari zarautzarrak ederki asko kontatuta •



Tulipa gorriak
Gari Berasaluze
TXALAPARTA

Honatx 10 urtetik aurrerako neska-mutikoentzako Axuri Beltza saileko liburua. Izokin bati gertatutako istoriaren metaforaz baliatuz askatasuna lortzea ederra bezain gogorra izan daitekeela adierazi nahi digu egileak. Hori guztia arrain haztegi batean gatibu dauden izokinak eta enarak, bere lagunak, biziko dituzten gertakizunen es-
kutik •

Zorionak Ipurbeltz!

Zorionak Erein argitaletxeari eta Ipurbeltz proiektuari 25 urteetan zehar 1977ko abendutik hilero hilero argitaratzea lortu izanagatik.

Ikastolen mundutik etorri zen ideia hura. Marrazkilari talde bat (Mikel Plazaola, Jesus Lucas, Anton Olariaga, Tomas Hernandez Mendizabal, Hilario Urkia eta Pedro Agirregomezkorta), Anjel Lertxundi idazlearekin eta Erein argitaletxeko Julen Lizundiarekin elkartu zen eta lehen bultzada eta argia eman zioten IPURBELTZ komikiari. Harrez gero Euskal Herriko marrazkilarien harrobi eta plataforma bihurtu da proiektua. Besteak beste, bertan aritu dira Asun Balzola, Jon Zabaleta, Miguel Berzosa, Jose Gaston eta hainbat eta hainbat marrazkilari, bakoitza bere estilo propioarekin; haur ilustrazioaren gertuko batzuk, bineta eta tebeoarena beste hainbatek, marrazki artistikoaren antza zutenak, europar eta amerikar nazioarteko komiki estiloa zutenak... Bakoitza lana sormenez egiten ahalegindu da, eta gidoigile, egokitzaile eta itzultzaile ugari eker irribarre eta barre, amets eta gure aspaldiko historiari bidaiak egin ere egin ditugu.

Eta hori ere Ipurbeltz proiektuaren helburuetariko bat zen, *“gure kultura berreskuratzeakoan funtsezkotzat jotzen dugu ahalegin serioa egitea haur hizkeraz, komikian, gure umorea, gure fantasia, gure historia, gure estetika agertzeko, alegia, gure komikia gaur egun Euskal Herrian bizi diren umeentzat egiteko”*. Denon artean istorioak sortzea zen asmoa, etxeakoak izango ziren pertsonaiak sortzea, gugandik hurbilekoak zirenak, haien gustu, izateko eta janzteko modua, eta gauzen eta munduaren ikusmolde berezia izango zutenak, finean. Eta horrelaxe hasi ziren lehenbizikoak jaiotzen: Mari Txano Gorritxo eta otsoa, Braulio, Txomin, Telmo, Elitxu, Punki, Mintxo, Ramuntxo Ganbelutxo, Doktore Salbatore, Poxo, Prontxio eta Martzelino... eta


pertsonaia historikoak ere bai, Iparagirre eta Loiolako Inazio, esaterako.

Ipurbeltzek bere alea erantsi du euskalgintzan ere. Izan ere euskara arrunta garatzen lagundu du Ipurbeltzek, hikako hizkera pertsonaia bartzuen ahotan jarritz, euskara bertatik sortutako onomatopeia jatorrak erabiliz, eguneroko egoerak errepresentatuz, herri txikitari nahiz hiri handitan gertaerak kokatuz... betiere euskara jolas hizkuntza ere badela agirian utziz. Hala zioten orain mende laurdean komiki berri baten proiektua buruan zebilkitenek. *“Komikia komunikabide nagusietako bat da haurraren bizitzan, haurraren gustukoenetakoa, eta haurraren eraginik handiena duenetako bat. Bizi garen mundu honetan, irudia maila guztietan gero eta garrantzitsuagoa delarik, argi dago zenbat suposatzen duen komikiak haurren bizitzan”*. Izan ere, *“komikiak hizkera bizia, zuzena erabiltzen du, kalean, etxean, adiskideen artean erabiltzen den benetako hizkuntza”*.


“Euskararen kasu gertatzen den bezala, talde txiki batek erabiltzen duen hizkuntza baten berreskuratze prozesuan, hizkuntza estandarizatuago bat osatu nahi denean, era horretan ikasten errazagoa gertatzen baitaie hizkuntza horren arima sakona ez duten gehienei adierazmoldeen, hiztegiaren, forma tipikoen aberastasuna gartzeko arriskua dago (eta horietxek izaten dira askotan hizkuntza horren adierazpide benetako eta originalenak). Gure ustez, bi mugimenduren oreka a-

berasgarri bat bilatu beharra dago: alde batetik, hizkuntza erraz bat eskaini behar zaie biztanle guztiei, ñabardura gutxikoa, estandar samarra, baina, aldi berean, hizkuntza horren ñabarduren aberastasun osoaren garapena sendotu behar da, forma, adierazmolde, egitura formalen aberastasunaren garapena, halako eran non hizkuntza estentsioz (biztanleriari eta geografari dagokionez) salbatu eta berreskuratzeaz gainera, aldi berean, eta indar berberaz, sakontasunean ere, bere forma berezkoetan, bultzatu behar baita. Zentzu horretan, gure ustez, komikiak, oinarritzko mailan, haurren mailan, modu guztiz egokian batera ditzake bi alderdi horiek, oso garrantzitsua iruditzen zaigun gauza”.

Helburu horiek guztiek ebaluatu beharko dira orain, ia 300 ale argitaratu diren honetan, etorkizunari nola helduko zaion erabakitzeko. Eta hori guztia ospatzeko, haurren artean egindako galdeketa jarraituz, 30 komiki aukeratu dira antologia bat osatzeko. Horrelaxe segi dezala Ipurbeltzek beste hogeita bost urtetan ere!



Urtxintxa Eskola eta Hik Hasi elkarrekin euskal jolasak sustatzen



Euskaraz jolasten ikasteko

ikastaroak 943 27 00 33 telefonoan

0-3 zentroak: hezkuntza eskaintzea helburutzat eta ez laguntza eskaintzea



Alfredo HOYUELOS

Infancia aldi-zikariko Erredakzio Batzordeko kidea
Nafarroan eta 0-3 urteko Hezkuntza Zikloaren alde-
ko Plataforma kidea

Jaio eta lehenengo urteetan sortzen eta egituratzen dira gizakiaren nortasunaren, adimenaren eta emozioen oinarriak eta gizarte jarreraren oinarriak. Une horretantxe egituratzen dira garuneko zelula gehienak eta neuronen arteko konexio gehienak. Eta prozesu hori guztia behar bezala osatzeko ezinbestekoak dira elikadura eta osasun egoiak edukitzea. Eta horrez gain, berriki egindako hainbat azterlan garrantzitsuren arabera, jaio eta lehenengo urteetan oso garrantzitsua da haurrek gizartearekiko elkarreragina edukitzea eta

ikaskuntzarako giro egokia eskuratzeari, hartara, jaiotzen garenetik berez ditugun ahalmen izugarriak garatzen laguntzeko.

José Riverok baieztatu duenez, beste haur batzuekin elkarreragin estimulatzaileak gozatzen duten haurrek -jostailuak erabiltzeaz eta elikadura egoki bat jasotzeaz gain-, garunaren funtzioen garapen hobea lortzen dute 15 urterira iristean. Amerikako Estatu Batuetan egindako beste azterlan garrantzitsu baten arabera -1998an argitaratu zena- sarrera baxuko auzo batetako haur batak, adin goiztiarretik heziketa egokia

jaso zuena, 27 urtera iristean lortutako eskolatzeko maila eta soldata, jaio eta lehenengo urteetan hezkuntza zentroetara joateko aukera izan ez zuten gazteena baino dexente altuagoak ziren, eta gizarte-zerbitzuekiko mendetasuna ere baxuagoa zen. XXI. mendeko Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCO erakundeari aurkeztutako txostenean (Delors txostena izenez ezagutzen dena), jaio eta lehenengo urteetan hezkuntzak duen garrantzia azpimarratzen da; zentzu horretan, *“lehen haurtzarora bereziki zuzendutako hezkuntza jasotzen duten hau-*





Bederatzi herrialdean egindako beste azterlan batzuen arabera, osasun egokia, maitasuna, afektua eta gorputzaren zainketa oso garrantzitsuak dira, baina ez nahikoa gizakia behar bezala garatzeko. Zerbait gehiago behar da. Eta beharrezkoa den hori hezkuntza da.

rrek eskolaratzeko aukera edo joera handiagoa izango dute hezkuntza jasotzen dutenek baino eta, gainera, eskolako ikasketak amaitu baino lehen uztea ere gutxiagotan gertatzen da. Bederatzi herrialdean egindako beste azterlan batzuen arabera, osasun egokia, maitasuna, afektua eta gorputzaren zainketa oso garrantzitsuak dira baina ez nahikoa gizakia behar bezala garatzeko. Zerbait gehiago behar da. Eta beharrezkoa den hori hezkuntza da.

Jaiotzen direnetik haurrek dituzten gaitasunak kanpora begira gauzatzeko gaitasunarekin dago lotuta heziketa, modu orekatsuan eta behar den garaian. Eta hezitzaile, psikologo, pedagogoa eta ikertzaileen ikuspegitik gero eta harrigarriagoak dira haurrak jaiotzen denetik berarekin dakartzan gaitasunak edo aberastasuna. Hortaz, herrialde eta toki erkidegoen lehentasuna izan beharko luke, haurren ahalmen guztien garapena ziurtatuko duten hezkuntza proiektuak lantzea.

Baina kontuan hartu behar da hezkuntza berez asistentzialtasunaren aurkakoa dela, izatez eta betetzen duen funtzioaren arabera (gizarte laguntzaileek ere beren izena aldatu zuten eta gizarte langile aukeratu, egokiagoa zelako eta zentzu peioratiborik ez zuelako).

Pobreaki edo beharra duenari laguntzen zaio. Laguntza eskatzen duenean karitatea eskaintzen zaio. Gure kontzientzia lasaitzeko eman nahi dugun gutxienerako hori da. Izan ere, asistentziala den gauza ororen abiapuntu

bezala baliabide gutxi dituen haurtzarora hartzen dugu (hain zuzen, hezkuntzaren kontzeptuarekin gertatzen denaren aurkakoa), eta adin txikiak direnez (eta "zenbat eta txikiagoak" orduan eta ahulagoak), gutxienerako emanda ere konforme gera daiteke eta geratu behar du.

Haurtzaroren zati hori ez da kontuan hartzen ez gizarte mailan ez politik mailan. Eta horixe da 0-3 urte bitarteko haurrekin gertatzen dena. Gaur egun, Kalitatearen Legearen eskutik izena ere ez da egokia, hezkuntza laguntza zentro zeharminduak berreskuratzean (gogoan izan Gizarte Laguntzaren Institutu Nazionalaren mendeko haurtzaindegiak) edo Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Erabaki ezduinaren bitartez Legea irregularki aurreratzen duenean (Nafarroan 0-3 urte bitarteko zentroak martxan jartzeko), zirkuluaren koadraturaren ezintasunari konponbidea aurkitu nahi zaio. Azken finean ukaezina da laguntza zerbitzuak direla, baina, XXI. mendean gaudelarik horrelako kontzeptu bat erabiltzea itsusi geratzen denez, inolako zentzurik gabeko binomio bat asmatu dute, hain zuzen, hezkuntza laguntzazko zerbitzuak.

Laguntzaren ildotik, asetu beharrezko premiak dituen haur bat -tabulara- aurkezten zaigu. Haurren premiak abiapuntutzat hartuta antolatzen dira erakundeak (eta dagozkion profesionalak, prestakuntza baxuagoa edo prestakuntzarik ez dutenak eta soldata baxuagoa dutenak) eta haurren oinarritzko zainketak asetzen saiatzen dira. Haurtzaindegi izenez ezagutzen ditugu (berdin da izena aldatu ala ez, giza baldintzak eta baldintza materialak aldatzen ez badira); gurasoak lanean ari diren bitartean, haurrei arreta eskaintzen dieten lekuak dira haurtzaindegiak.

Asistentzialtasunak gutxienerako eskainiko dio haurrari eta, zinez, ahalik eta gehien eskaini beharko litzaioke: ekonomia eta kulturari dagokienez, zarrastelkeria da gizakiak hobetzeko duen ahalmena mespretxatu egiten

duelako, eta errotik desagerrarazi beharko litzateke.

Asistentzialtasunaren ikuspegitik, haurra eskubiderik gabeko subjektu bat da. Arreta eta zainketak eskaini beharreko subjektu bat besterik ez da, eskubiderik gabea, adierazi beharreko aberastasunik gabea. Asistentzialtasunak ez du etekinik eman eta berak hasten eta amaitzen du zirkulua. Hortxe bukatzen da. Ez dago ezer gehiago. Gizateria osoaren aurrean adeitasunik eta errespeturik eza adierazten da asistentzialtasunaren eskutik.

Baina zergatik aipatzen da asistentzialtasuna 0-3 urte bitarteko zerbitzuez ari garenean eta ez hortik aurrerako adinez ari garenean? Nire ustez, aipatu akatsa eragiten duten hiru arrazoi daude, gutxienez. Jarraian irakur daitezke arrazoi bakoitzaren funtsa eta bakoitzari emandako hezkuntza erantzuna:

1. Hasteko, hezigarria dena alderdi akademikoarekin edo betiko hezkuntzarekin nahasten da (betidanik ezagutu ditugun eskola diziplinekin). Kasu horretan hezkuntza esatean matematika, irakurketa eta idazketa, margotzea, puzleak egitea eta abar ulertzen da. Bien bitartean, gorputz zainketa, elikadura eta haurra garbitzea bezalako lanak asistentzialtasunaren kontzeptuaren baitan bilduta geratuko lirateke. Eta hori ez da zuzena. Adin hauetan, esfinterren kontrola, batera bazkaltzen ikastea, garbitzea eta abar bezalako proposamenak intenzionaltasunez eta kontzienteki garatuz gero, haurrak heziketa jasoko du. Haurrek bizitzako jardueran orotan heziketa jasotzeko eskubidea dute eta eskubidea betetzeko eskatzen dute; gainera, eguneko edozein unetan haurrak hezitzeko titulazio edo prestakuntza egokia duten profesionalak izan behar dira heziketa horren ardura-dunak.

2. Bigarrenik, gogoan hartu behar da ordutegi eta egutegi zabalen eskutik asistentzialtasunari garrantzi handiago ematen zaiola (eskolak hiru urtetik aurrera eskaintzen duen ereduarekin alderatuta). Ez da kasualitate hutsa Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkun-



tzako zenbait zentrotan 7:30etik 9:00etara luzatzen den zerbitzu bat eskaintzea; zentro horiek haurtzaindegiak dira (haurtzaindegi izena jasotzen dute, ez baitago maistrarik eta ez baitago eskolaren antolakuntza arautuaren baitan sartuta). Haurrek ez dakite hezigarria dena eta ez dena bereizten; eguneko, asteko edo urteko edozein une izan daiteke hezigarria, baldin eta heziketa hori profesional egokiak antolatzen badute, material egokiak erabiltzen badira eta ratio egokiak eskaintzen badira. Haur bati eta bere familiari arreta eskaintzea, aukera eta baliabide anitzak eskaintzea, harremanak garatzea eta adiskidetasuna lantzea ez dira ordutegien edo urtaroen mende dauden ezaugarriak, ezta gutxiago ere; haurrei heziketa jasotzeko eskaintzen zaien aukera bat bezala ulertu behar da. Aitak eta amak lan egiteko eskubidea dute eta seme-alabak eduki ondoren gauzak erraztea edo malgutzea komeni da. Eta Haur Eskolaren erantzukizuna izan beharko luke bere antolakuntza malgutu eta familia baldintzak eta laneko baldintzak bateragarri egitea; horrekin ez dut esan nahi neska-mutilek hezkuntza erakundean denbora gehiegi igaro behar dutenik, beren gurasoekin egoteko eskubidea ere bai baitute. Kasu horretan eskolak ez du funtzio asistentziala garatzen; eskolak betetzen duen funtzioa soziala da. Hezkuntza esparruan alderdi soziala azpimarratzeaz gain, asistentzialtasunaren alderdi ahulak baztertu behar dira.

3. Eta nahiz eta zientzia mailan au-

Baina zergatik aipatzen da asistentzialtasuna 0-3 urte bitarteko zerbitzuez ari garenean eta ez hortik aurrerako adinez ari garenean? Estereotipo sozial horiek guztiak baztertzeko ordua iritsi da; adin goiztiarretik hezkuntza zientzia izatea lortu behar da eta haurren gaitasun guztiak garatzea lortu behar da proiektu pedagogikoen laguntzarekin.

Haurrek, jaiotzen direnetik, hezkuntza jasotzeko duten eskubidea errespetatzeko eskatzen dute.

rerapen garrantzitsuak egin, indarrean dagoen hirugarren ideiak azpimarratzen duenez adin horretako haurrek amarekin egon beharko lukete (izan ere, ustez, amarekin bezain ondo ez da beste inon egongo). Jendartean oso hedatuta dagoen ideia, psikologia mota eta politika mota batek indartu duena, honakoa da: haur horien amak, zoritxarrez, etxetik kanpora lan egiten badu, konponbide egokiena da haurra aipatutako zentroetan sartzea bertan, "zorigaiztoko" haurrei arreta eta afektua eskaintzeko, horixe baita, hain zuzen, garrantzitsuena. Bestalde, hainbat ikerketen arabera baieztatuta geratu da haurrak hezkuntza zentroetara bidaltzea abantailatsua izan daitekeela (alderdi sozialak eta afektibitate mailakoak biltzen dituen testuingurua), heziketa eta familiaren maitasuna elkarren artean bateragarriak egiten direlarik. Horrez gain, Haur Eskolak eraginkortasun handikoak dira familien gizarteratzea lortzeko eta ezinbesteko laguntza dira gure seme-alabak heitzeko orduan. Gainera, kontuan hartu behar da familia testuinguru guztiak ez direla egokiak izaten haurren garapena lortzeko (zoritxarrez, ez da oraindik lortu haurren aurkako tratu txar fisikoak eta psikologikoak desagerraraztea). Hezkuntza zentroek testuinguru orekatua eta segurua eta garapen harmoniatsua lortzeko behar diren estimuluak eskaintzen dizkiete.

Estereotipo sozial horiek guztiak baztertze ordua iritsi da; adin goiztia-

retik hezkuntza zientzia izatea lortu behar da eta haurren gaitasun guztiak garatzea lortu behar da proiektu pedagogikoen laguntzarekin.

Eredu asistentzialaren arrisku handiena da nonahiko eredu dela, haurrak txikiak direnean zenbait familiari eta gizarteari erantzun azkarra ematen diona. Politikariek ere ez diote garrantzi handiegirik ematen gai honi, ez delako eraginik hauteskunderi begira. Eta egoera horren atzean haurren eskubideen aurreko begirunerik eza nabarmena da; zenbat eta txikiagoak izan haurrak orduan eta nabarmenagoa geratzen da bere etimologiaren esanahia (infans=hitz egiten ez duena). Jesús Palacios-ek dioen bezala, "egindako ikerketek baieztatu dutenez, hezkuntza-maila baxuen duten familien kasuan, sarriagotan onartzen dituzte laguntzazko aukerak, baina kultura gehiago eta diru-sarrera altuagoak dituzten familien kasuan, aitzitik, hezkuntza aukerei ematen zaie garrantzi handiagoa". Eta aipatu diskriminazioa saihesteko modu bakarra da (lege eta dekretu egokiak emanez) laguntza zentrorik edo hezkuntza laguntza zentrorik ez edukitzea (horretarako instalazioak, langileen titulazioak, bitarteko materialak, ratioak, eta abar aztertuko direlarik).

Beharren ikuspegi politiko batetik eskubideen ikuspegi politiko batera igarotzea ezinbestekoa da. Eskubidea kontzeptuaren definizioaren arabera "gizakiak bere bizi-tzako helburuak lortzeko duen gaitasun naturala edo berezkoan" eta "legeak haurren alde zehazten duen gauza oro egiteko edo eskatzeko gaitasunean" gauzatzen da eskubidea. Haurrek ez dute inoren karitatea eta eskuzabaltasuna eska-

tzen; gizarteak eskubideak dituzten subjektutzat hartzea lortu nahi dute. Eta eskubide horien artean, jaiotzen direnetik hezkuntza jasotzeko duten eskubidea errespetatzeko eskatzen dute. Haurrek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea aitortzea demokrazian egin beharreko zerbait da.

"Kontuan hartu -esan zuen Malaguzzi-k-, azken berrogei urteetan haurren inguruan seriooki egindako ikerlan guztien ondorioz bereziki nabarmendu direla haurrek berez duten indarra eta ahalmenak eta ez hainbeste haurren alderdi ahulak eta mugak. Hala ere, ikerketen ondorioz haurrekin erlazioan tutako hainbat alderdi garrantzitsu azpimarratzea lortu bada ere, gobernu nazionalak eta nazioarteko aginte zentroek ez dituzte ekonomia, politika eta lege mailako jarraitubideak aldatu. Hortaz, haurren eskubideak eta interesak lehenetsunaren eskalaren amaieran uzten dira Lurreko edozein herrialdeko finantzaketa eta esku-hartzea aztertzean". Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Sailaren bitartez, oraindik garaiz dago 0-3 ontziaren noranzkoa zuzentzeko -beste hainbat Erkidegotan jada egin duten bezala-, hartara, "Kalitatearen" Legearekin Prestige ontziarekin gertatutakoa ez errepikatzeke, hau da, lehen haurtzaroko urak poluitu eta hiltzea saihesteko. •





Golapen Altxorra

eeup!!



Hau
ospatu
beharra
dago!

BIDEO eta DVDa

hh
hik hasi
Tf.943 371545

kultur

s r t z n u u

S r m n u t z t z n u u t z u r s k u t n
t z n t u r k k r k k
k l s k k, h r h r k k. S r z l r n
s k t k z r s k t r.
r t n t s m n u t m s k u t z n z z.
M e r u r k . H u u r k u t u r .

